

KOIUNTURAZ

78. zkia.

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123


AURKIBIDEA

LABURPENA	1
EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA.....	7
EAEko ekonomiaren testuingurua	7
Ekoizpena eta eskaria.....	12
Ekoizpen jarduera	13
Eskariaren osagaiak	17
Kanpo saldoa	20
Lan merkatua.....	25
Prezioak, kostuak eta soldatak	31
Prezioak	32
Lan kostuak eta soldatak	35
Arlo publikoa.....	37
Finantza arloa	39
EKONOMIA AURREIKUSPENAK.....	45
Ingurunerako aurreikuspenak	45
EAErako aurreikuspenak	51

LABURPENA

EAEko ekonomiak nabarmen moteldu zuen urte arteko hazkunde erritmoa 2011ko laugarren hiruhilekoan %0,2an kokatu arte, aurreko hiruhilekoan jasotakoa baino lau hamarren txikiagoa eta azken zazpi hiruhilekoetako baliorik apalena baita. Horren ondorioz, urtebete eta erdiko susperraldi ahul baten ondoren, beste atzeraldi bati zabaldu zaio atea oraingoan. Hain zuzen ere, laugarren hiruhilabetean izandako hiruhileko arteko tasa % -0,2ra iritsi zen, Espainian eta Europar Batasuneko multzoan (% -0,3) eta baita Alemanian bertan ere (% -0,2) jasotakoaren antzekoa. Barne eskariak beherakada garrantzitsua ezagutu zuen urte amaieran, baina kanpo merkatuen bultzadak bide eman zion kanpo saldoari barneko ahultasuna konpentsatzeko. Hala eta guztiz ere, EAEko esportazioetako helburu merkatuak ere moteltzeko joera garbia erakutsi dute.

EAEko ekonomia. BPGren bilakaera.




Iturria: Eustat.

Nazioarteko ingurunean, garapen bidean dauden herrialdeek hazkunde tasa garrantzitsuak lortu zituzten berriro, nahiz eta beraien gehikuntza erritmoak gero eta motelagoak diren. Txinak %8,9ko urte arteko tasa jaso zuen laugarren hiruhilekoan, aurreko balioa baino bi hamarren txikiagoa baita, kanpo eskariak bizitasuna galdu duelako eta bertako gobernuak

ekonomia gehiegi bero ez dadin saihesteko neurri murriztaileak onartu zituelako. Txinako ekonomiak indarra galdu duenez, herrialde hartako agintariak interes tasen eta kredituaren gainean ezarri dituzten kontroleko neurriak leuntzen ari dira. Indiak eta Brasilek ere aurrekoak baino gehikuntza tasa txikiagoak jaso zituzten (hurrenez hurren, %6,3 eta %1,4), baina lehenengo herrialdean oraindik hazkunde sendoa lortu da. Aurreko guztiaren ondorioz, herrialdeen arteko merkataritza salerosketak gutxiago hazi dira, baina salmenten bolumena oraindik inoizko altuenetakoa da.

Munduko ekonomia. BPGren eta nazioarteko merkataritzaren bilakaera.
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eurostat, ELGE, The Economist eta Munduko Merkataritza Antolakundearen datuak erabilia.

Herrialde garatuen multzoak aurreko hiruhilekoko hazkunde leunari eutsi zion, baina emaitzak oso bestelakoak dira eremuaren herrialde batzuetan eta besteetan. Zehazkiago adierazita, AEBek %1,5aren inguruko hazkunde egonkorreko irudia eskaini zuten eta Erresuma Batuak, berriz, hiru hamarrenetan hobetu zuen bertako BPGaren aldakuntza tasa. Aitzitik, Japoniak lau hamarrenetan okertu zuen aurreko datua eta oraindik balio negatibotan murgilduta jarraitzen du. Azkenik, Europako herrialdeek, oro har, moteltzeko joeran sakondu zuten eta aurreko hiruhilekoan baino puntu erdi bat gutxiago hazi ziren.

BARNE PRODUKTU GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011			
			I	II	III	IV
Europar Batasuna 27	2,0	1,6	2,4	1,7	1,4	0,9
- EAE	0,3	0,6	0,9	0,8	0,6	0,2
- Espainia	-0,1	0,7	0,9	0,8	0,8	0,3
- Alemania	3,7	3,0	4,6	2,9	2,7	2,0
- Frantzia	1,5	1,6	2,2	1,6	1,5	1,4
- Italia	1,5	0,5	1,0	0,8	0,3	-0,5
- Erresuma Batua	2,1	0,9	1,7	0,6	0,5	0,8
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	3,0	1,7	2,2	1,6	1,5	1,6
Japonia	4,4	-0,9	-0,1	-1,7	-0,6	-1,0
Txina	10,4	9,3	9,7	9,5	9,1	8,9
India	10,3	7,3	7,7	8,5	6,7	6,3
Errusia	4,0	---	3,8	3,5	4,8	---
Brasil	7,6	2,7	4,1	3,3	2,2	1,4


Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.

Iturria: NDF, The Economist, ELGE, Eustat eta Eurostat.

Europako herrialdeek bizi dituzten zailtasunek, bereziki zor subiranoaren arazoa konpontzeko ezintasunak, eragin handia izan dute eremu horretarako hazkunde aurreikuspenak egiteko orduan eta baita truke tasan ere. Hain zuzen ere, euroaren eta dolarren arteko kotizazioa 2011ko apirilean 1,44 dolarrekoa izatetik aurtengo urtarrilean 1,29 dolarretara igaro zen, otsailean euroaren balioa zertxobait suspertu bazen ere (1,32 dolar behar ziren euro bat erosteko). Beraz, Europako dirua %8,4 baliogabetu da. Balio galera horren ondorioz, energiaren faktura garestitu egin da, Brent motako petrolioaren upelak azken sei hilekoetako egonkortasuna bertan behera utzi duen une batean, upelaren salneurria 119 dolarretara igoz. Are gehiago, eurotan neurtzen bada, petrolioaren upelak inoizko salneurrik garestiena izan zuen otsailean, 90 eurotan kotizatu baitzen, 2008ko erdialdean markatu zituen prezioak

gaindituz. Munduko ekonomiarentzako aurreikuspenek okerrera egin izanak eta, horren ondorioz, petrolio gordinaren etorkizuneko eskaria apalduko delako usteak ez ditu konpentsatu Afrikako iparraldeko eta Pertsiako Golkoko tentsio geopolitikoak.

Petrolioaren prezioaren eta truke tasaren bilakaera



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Hazkunde tasak moteltzeko testuinguru horretan, EAEko ekonomiak %0,2ko urte arteko tasa hutsala jaso zuen 2011ko laugarren hiruhilekoan, aurreko balioa baino lau hamarren txikiagoa baita. Ekonomia eragileen igurikimen ezkorragoek eragina izan zuten barne eskarian eta berau %1,0 jaitsi zen aurreko urteko epealdi beraren aldean. Kanpo saldoak, berriz, 1,2 puntu ekarri zion BPGren hazkundeari, EAEko esportazioetako helburu merkatuak bizitasuna galtzen ari diren arren. Hain zuzen ere, EAEko enpresek kanpoan saldutakoaren balioa %7,3 igo zen termino errealetan, hots, aurreko hiruhilekoan baino bost puntu gutxiago, eta inportazioek are gehiago gutxitu zuten beren hazkunde tasa, hirugarren hiruhilekoan izandako %11,1etik laugarreneko %4,9ra.

Barne eskariaren osagaien artean, kontsumo pribatuak bakarrik jaso zuen urte arteko hazkunde bat (%0,5), lan merkatuak begi bistako narriadura pairatzen ari den arren. Kontsumo publikoak, berriz, jaitsiera erritmoa areagotu zuen (%-3,6), administrazio publikoak, bai langileen arloan bai, bereziki, funtzionamenduko gastuen murrizketan, abian jarri dituen doikuntzen ildotik. Azkenik, kapitaleko eraketa gordinak ekonomia eragileen ezkortasuna nabaritu zuen eta %2,8ko beherakada jaso, urte osoko handiena delarik. Igurikimenean

okerragotzeak nabarmen murriztu du ekoizteko ahalmena handitzeko interesa eta kreditu bat lortzeko zailtasunek zahartuta geratu den makineria ordezkatzeko aukerak mugatzen ditu. Eraikuntzan eginiko inbertsioari dagokionez, ez obra publikoak ez etxebizitzaren merkatuak ez dute suspertzeko zantzurik erakutsi.

Ekoizpen arloen ikuspegitik, industriaren balio erantsiak aurreko sei hiruhilekoetan lortu zituen tasa positiboak ez zituen berritu eta beherakada txiki bat (%-0,2) jaso zuen. Jaitsiera hori iragarrita zegoen industria produkzioaren bilakaeran. Halaber, bizitasunaren galera Europako herrialde askotan ere gertatzen ari da. Eraikuntzan oso tasa negatibo bat jaso zuen berriro, baina aurreko bi balioen aldean beherakada leunagoa izan zen. Hala eta guztiz ere, koianturako adierazleek ez dute inolako hobekuntzarik iragartzen sektore horretan. Zerbitzuek %0,6ko gehikuntza lortu zuten urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoan jasotako %1,3 hartatik urrun. Sektore horretan egonkortasuneko portaera hauteman da merkaturatzen diren zerbitzuetan (%0,8), aurreko datuaren aldean hamarren bakar bat galdu baitzuten, eta beherakada arin bat merkaturatzen ez diren zerbitzuetan (%-0,3), administrazio publikoak bideratu dituen murrizketek baldintzatuta.

Barne produktu gordinak bizi duen ahultasunaren ondorioz, EAEko ekonomiak enplegua galdu zuen berriro laugarren hiruhilekoan (%-1,3), aurreko hiruhilekoan baino are gehiago. Zerbitzuek bakarrik areagotu zuten lanpostuen kopurua, nahiz eta kantitatea (%0,2) oso esanguratsua ez den. Ekoizpenaren eta enpleguaren arteko konbinaketak adierazten du ekoizkertasuneko irabaziak garrantzitsuak izan zirela (%1,5) eta aurreko balioak gainditu zituela, nahiz eta hobekuntza horren eragilea enpleguaren galera izan zen prozesuen hobekuntza izan beharrean. Langabezia tasa sei hamarrenetan igo zen eta %11,2an kokatu, Europako batez bestearen gainetik, baina Estatukoaren ia erdia da.

EAE-KO EKONOMIA. EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011			
			I	II	III	IV
BPG erreala	0,3	0,6	0,9	0,8	0,6	0,2
Enplegua	-0,9	-0,6	-0,1	-0,4	-0,7	-1,3
Ekoizkertasun irabaziak	1,2	1,2	1,0	1,1	1,3	1,5
Langabezia tasa	9,2	10,8	10,7	10,9	10,6	11,2
Kontsumoko prezioen indizea	1,7	3,1	3,4	3,4	2,9	2,7

Iturria: Eustat eta INE.

EAEko ekonomiarako aurreikuspen eguneratuek adierazten dute gaur eguneko ahultasuna areagotuko dela aurtengo lehen erdian, bigarren hiruhilekoan %-1,6ko urte arteko aldakuntza tasa jaso arte. Harez geroztik, jaitsiera erritmoa leunagoa izan daiteke eta urtebete bat beranduago BPG egonkortuko da. Barne eskariaren osagai guztiek behera egingo dute urteko batez bestean, bereziki kapitaleko eraketa gordinak eta administrazio publikoetako gastuak. Beste aldetik, kanpo arloak ekarpen positiboa egingo dio berriro BPGren hazkundeari, baina ingurunearen ahultasunak, bereziki Europakoak, bi hamarrenetara mugatuko du ekarpen hori, 2011koa baino puntu erdi bat txikiagoa izango baita.

EAE-KO EKONOMIA. AURREIKUSPENAK 2012RAKO ETA 2013RAKO

Urte arteko aldakuntza tasak	2012				2012	2013	
	I	II	III	IV		I	II
BPG erreala	-0,8	-1,6	-1,4	-1,2	-1,3	-0,5	0,1
BPGren deflatoarea	1,3	1,3	1,1	1,0	1,2	1,1	1,2
Enplegua	-1,8	-2,0	-1,7	-1,7	-1,8	-1,3	-1,0
Langabezia tasa	11,7	12,1	12,2	12,2	12,1	12,3	12,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Ekoizpen arlo nagusiek ez dute balio erantsia areagotuko 2012. urtean. Izan ere, industriak zailtasunak izango ditu hazkunde positiboa lortzeko, beraren merkatu behinenek, hots, espainiarrak eta europarrak, BPGren jaitsierak nozituko dituztelako. Eraikuntzak, berriz, beste urtebete batez balio erantsia murriztuko du, 2011an baino are gehiago, herri lanetan ezarri diren murrizketa handiengatik, negozio berriak abian jartzeko igurikimen ezarengatik eta etxegintzaren geldotasunarengatik. Administrazioak onartutako neurri murriztaileek merkaturatzen ez diren zerbitzuen bilakaera baldintzatuko dute eta, lehenengo aldiz, balio negatiboak jasoko dituzte. Azkenik, merkatuko zerbitzuek oso gutxi (%-0,1) murriztuko dute balio erantsia urte arteko tasan.

BPGaren jaitsierarekin batera landunen kopurua murriztuko da berriro, oraingoan %1,8, hau da, ia 17.500 lanpostu galduko dira. Horren ondorioz, langabezia tasa puntu bat baino zertxobait gehiago igoko da eta %12,1ean kokatuko da urteko batez bestean, baina are handiagoa izan daiteke lana eskatzen dutenen kopurua hazten bada. Prezioei dagokienez, eskariaren ahultasunak BPGaren deflatoarea 2012an %1,2 baino gehiago haztea eragotziko du, nahiz eta energiako merkatuetako ezegonkortasunak une batean kontsumoko prezioak gorarazi ditzakeen.


EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA

EAEko ekonomiaren testuingurua


2011ko laugarren hiruhilekoa Euroguneak bizi duen egoera zailak markatu zuen, munduko ekonomiako arrisku nagusia izan baitzen berriro. Izan ere, eremu horren narriadura garatutako beste herrialde batzuetara hedatu zen, bereziki Europakoetara, azaleratzen ari diren herrialdeek moteltze kontrolatuko egoerari eutsi zioten bitartean. Testuinguru horretan, finantza merkatuetan arriskutik aldentzeko joera areagotu zen eta hazkunde aurreikuspenen okerragotze garbia hauteman zen.

Munduko ekonomia. Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak


ELGE




Europar Batasuna 27



Txina



India



Iturria: Eurostat, ELGE, NDF eta The Economist.

Hain zuzen ere, eskari globalaren beherakadak, eta bereziki Europako eta AEBetako merkatuenak, eragin zuzena izan zuen Txinako esportazioetan, iazko azken hiruhilekoan %14aren inguruan hazi baitziren, 2011ko lehen hiru hiruhilekoetan lortutako %20tik gorako tasak baino nabarmen gutxiago delarik. Salmentak gutxiago hazi baziren ere, barne eskariak sendo jarraitu zuen eta BPG %8,9 igo zen. Datu hori azken bi urte eta erdiko erritmo motelena da, baina, hala eta guztiz ere, urte osoko hazkundea %9,2an uzteko balio izan zuen. Bizitasun galera hori, neurri batean, Txinako gobernuak kreditua eta inflazioa kontrolatzeko bideratu zituen politiken ondorioa da. Izan ere, neurri horiei esker, kontsumoko prezioen indizea urtarrilean %4,5era jaitea lortu zen, uztaillean jaso zen %6,6ko tasa baino askoz beherago dagoelako.

Garapen bidean dauden herrialdeen artean, aipamen berezia merezi du Brasileko ekonomiaren bilakaerak, Txinarena edo Indiarena bezain hazkunde aparta jaso ez bazuen ere (%1,4 hazi zen laugarren hiruhilekoan eta %2,7, berriz, 2011. urte osoan). Estimazio horien arabera, 2011. urtean munduko seigarren potentziaren tokia bereganatu zuen, duela ehun urte lehen potentzia zen Erresuma Batuen aurrean.

AEBek erakutsi zuten egonkortasunak ez zuen konpentsatu Europar Batasuneko moteltzea ezta Japoniaren beherakada ere. Beraz, ELGE osatzen duten herrialdeek, oro har, %1,3ra gutxitu zuten hazkunde tasa, 2011ko hirugarren hiruhilekoan jasotakoa baino lau hamarren gutxiago delarik. Zehazkiago adierazita, AEBek bere hazkunde erritmoa finkatu zuten eta ekonomia aurreratuen buruan kokatu zen. Kontsumo pribatuaren sendotasunak eta etxegintzan eginiko inbertsioak bide eman zioten BPGari 2011ko laugarren hiruhilekoan %1,6 hazteko. Tasa horrek hamarren bakar batean hobetu zuen aurreko hiru hilekoetako emaitza, baina aldaketa ekarri zion hazkundearen osaketari, gastu eta inbertsio publikoan oinarritu beharrean kontsumo eta inbertsio publikoan oinarritzen den eredu iraunkorrago bat hartu zuelako. Gehikuntza horri esker 100.000 lanpostu baino gehiago sortu ziren 2011ko azken hileko bakoitzean eta langabezia tasak behera egin zuen 2012ko urtarrilean %8,3an kokatu arte, hiru urteko mailarik apalena baita. Azkenik, inflazioak 2011ko irailean hasi zuen beheranzko joera areagotu zuen eta garai hartako %4,0tik %2,9ra jaitsi zen KPI indizea urtarrilean.

Japonian, ekonomiaren jarduerak berriro egin zuen behera eta %1,0 murriztu zen. Kontsumo publikoaren eta inbertsioaren igoerak ez zuen konpentsatu esportazioen apaltze bizia. Izan ere, herrialde horrek 24.599 milioi euroko defizita jaso zuen 2011. urtean merkataritzako harremanetan, 31 urtetik gorako epealdian jaso duen lehen saldo negatiboa baita. Datu positiboa prezioen aldetik iritsi zen, 2011ko azken hilekoetan jaitsi ziren arren, 2012ko urtarrilean balio positiboetara itzuli zirelako. Azkenik, langabezia tasa %4,6an kokatu zen abenduan, 2011. urte osoan izan zuen mailatik oso hurbil.

INGURUNeko EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

	2010	2011	2010		2011				
			IV	I	II	III	IV	Urtar.	Otsaila
BPG erreala									
AEB	3,0	1,7	3,1	2,2	1,6	1,5	1,6	---	---
Japonia	4,4	-0,7	3,2	-0,1	-1,7	-0,6	-1,0	---	---
Eurogunea 17	1,9	1,4	2,0	2,4	1,6	1,3	0,7	---	---
- Alemania	3,7	3,0	3,8	4,6	2,9	2,7	2,0	---	---
- Frantzia	1,5	1,7	1,4	2,2	1,6	1,5	1,4	---	---
- Erresuma Batua	2,1	0,8	1,7	1,6	0,5	0,4	0,7	---	---
Inflazioa									
AEB	2,4	3,3	1,3	2,1	3,4	3,8	3,3	2,9	---
Japonia	-0,7	-0,3	-0,3	-0,5	-0,4	0,1	-0,3	0,1	---
Eurogunea 17	1,6	2,7	2,0	2,5	2,7	2,7	2,9	2,7	2,7
- Alemania	1,2	2,5	1,6	2,2	2,5	2,7	2,7	2,3	2,5
- Frantzia	1,7	2,3	1,9	2,0	2,2	2,3	2,6	2,6	2,5
- Erresuma Batua	3,3	4,5	3,4	4,1	4,4	4,7	4,7	3,6	---
Langabezia tasa									
AEB	9,6	8,9	9,6	9,0	9,0	9,1	8,7	8,3	---
Japonia	5,1	4,6	5,0	4,7	4,6	4,4	4,5	---	---
Eurogunea 17	10,1	10,2	10,1	10,0	10,0	10,2	10,5	10,7	---
- Alemania	7,1	5,9	6,7	6,3	6,0	5,8	5,7	5,8	---
- Frantzia	9,8	9,7	9,7	9,6	9,6	9,7	9,8	10,0	---
- Erresuma Batua	7,8	---	7,8	7,7	7,9	8,3	8,4	---	---

Iturria: BEA, Japoniako Bankua eta Eurostat.

Europar Batasunak narriadura orokorra jaso zuen eremua osatzen duten herrialdeetako hazkunde tasan eta 2011ko azken hiruhilekoan %0,9ra arte murriztu zuen BPGren gehikuntza, hots, aurreko hiruhilekoan baino puntu erdi bat beherago. Euroguneko herrialdeek gehiago nabaritu zuten erritmo galera hori eta haietako batzuek balio negatiboak jasotzera iritsi ziren (Italiak %-0,4, Txiprek %-0,7, Herbehereek %-0,3 eta Esloveniak %-1,5). Aitzitik, eremu horretakoa ez diren batzuek hazkunde biziagoa lortu zuten, beraien artean Danimarka, Polonia eta Erresuma Batua nabarmentzen direlarik.

Zehazkiago adierazita, Alemania bilakaera onena lortu zuten ekonomien artean kokatu zen eta laugarren hiruhilekoan %2,0 areagotu zuen bere BPG. Inbertsioaren bilakaera positiboak, bereziki eraikuntzan eginikoak, eta kontsumo publikoaren egonkortasunak kanpo arloak

nozitu zuen narriadura esanguratsua neurri batean konpentsatu zuten. Frantzia, ekonomia jardura nahiko egonkor mantendu zen eta %1,4ko hazkundera lortu zuen, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bakar bat gutxiago, barne eskariak eta kanpo eskariak egin zituzten ekarpen positibo eta tamainaz antzekoei esker. Erresuma Batua, berriz, aurreko hiruhilekoan baino gehiago hazi ziren bakanetakoa da, baina lortu zuen hazkunde tasa Europako bazkide nagusia baino askoz ere txikiagoa izan zen. Kasu horretan, esportazioen bultzadak %0,7ra gorarazi zuen BPG, zeren eta kontsumo pribatuak eta inbertsioak azken bi urteko jaitsierarik handienak jaso zituztelako.

Azaleratzen ari den Europak, berriz, nahiko ondo saihestu zuen moteltzeko joera garbi hau. Izan ere, eremu horretako hamabi herrialdeetatik zortzi Europar Batasunak lortu zuen %0,9 baino gehiago hazi ziren, Letoniak, Lituaniak eta Estoniak %5,0tik gorako gehikuntza tasak lortu zituztela. Inbertsioaren sendotasunak eta esportazioen bizitasunak azaltzen dute, kasu gehienetan, gorakada horiek. Beste muturrean, periferiako ekonomiak kokatu ziren, zeinetan barne eskariak oso nabarmen lastatu baitzuten hazkundera. Hain zuzen ere, Greziak bere krisia areagotu zuen jardura ekonomikoaren %7,0ko jaitsiera batekin eta Portugalek bere narriadura areagotu zuen %-2,8ko tasa bat jaso arte, 2009ko erdialdetik inoizko emaitza txarrenea baita.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasa 0,1 puntu igo da hileko bakoitzean 2011ko uztailetik, modu nahiko egonkor batean, 2012ko urtarrilean %10,1era iritsi arte, serie historikoa 2000. urtean hasi zenetik inoiz jaso den baliorik gorena baita. Tasa horrek adierazten du langabeen kopurua 24,3 milioi pertsonatik gorakoa dela. Hala ere, alde handiak daude lurraldeen artean langabezia tasaren bilakaerari dagokionez. Izan ere, Austria, Herbehereetan eta Alemanian (abenduan, inoizko enplegu mailarik gorena lortu baitzuten herrialdea 1990. urtean berriro batu zenetik) langabezia tasa %4aren eta %5,8aren artean kokatu zen bitartean, Portugalen eta Espainian bi zenbakitan kokatu zen (%14,8 eta %23,3, hurrenez hurren).

Prezioek goranzko joera erakutsi zuten laugarren hiruhilekoaren hasieran, baina urte amaieran apaldu ziren eta Europar Batasuneko KPI indizea %3,0an kokatu zen otsailean. Berriro ere, herrialdeen arteko aldea oso nabarmena izan zen. Alemanian (%2,5) eta Frantzia (%2,5) inflazioa nahiko egonkor eta neurritsu ibili zen bitartean, azaleratzen ari den Europako herrialdeetan %3,0aren eta %4,7aren artean igo zen.

2011. urtean zehar, Espainiako ekonomiak lortua zuen susperraldi txikia ahuldu zen. Urte hartako laugarren hiruhilekoan, esportazioak areagotu baziren ere, kanpo arloak hazkundera 3,2 puntuko ekarpena eginez, inbertsioaren osagai guztiek, baina bereziki aktibo finko materialek, eta kontsumo pribatuak izan zuten narriadura biziak barne eskaria beheratu zuen,

hazkundeari 2,9 puntu kenduz. Aldakuntza horiek Espainiako ekonomiaren hazkunde tasa %0,3ra eramane zuten. Urte amaierako emaitza horri esker, BPGa %0,7 hazi zen 2011. urtean, Euroguneko herrialde nagusiekiko aldea zabalduz.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2010		2011		
			IV	I	II	III	IV
Azken kontsumoko gastua	0,6	0,7	0,4	0,4	-0,8	-0,6	-1,8
- Familien gastua	0,7	-0,1	0,8	0,4	-0,3	0,5	-1,1
- Administrazioaren gastua	0,2	-2,2	-0,9	0,6	-2,1	-3,6	-3,6
Kapital finkoaren eraketa gordina	-6,3	-5,1	-5,4	-4,9	-5,4	-4,0	-6,2
- Aktibo finko materialak	-6,4	-5,4	-5,4	-5,3	-5,6	-4,3	-6,5
- Eraikuntzan	-10,1	-8,1	-9,3	-9,2	-8,1	-7,0	-8,2
- Ekipamendurako ondasunetan	5,1	1,4	5,4	5,5	1,0	2,2	-2,7
- Aktibo finko inmaterialak	-4,8	0,0	-5,4	1,5	-3,1	2,0	-0,3
Nazio eskaria (*)	-1,0	-1,8	-0,9	-0,8	-1,9	-1,4	-2,9
Esportazioak	13,5	9,0	14,9	13,1	8,8	9,2	5,2
Inportazioak	8,9	-0,1	8,0	6,0	-1,3	0,9	-5,9
BPG (m.p.)	-0,1	0,7	0,7	0,9	0,8	0,8	0,3
Nekazaritza eta arrantza	-1,1	0,6	-0,3	1,1	0,5	0,4	0,3
Industria	0,6	1,9	1,3	3,0	2,3	2,8	-0,4
Eraikuntza	-7,8	-3,8	-5,9	-4,9	-3,2	-3,2	-3,7
Zerbitzuak	1,4	1,1	2,2	1,4	1,0	1,0	0,9
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,2	1,7	-2,2	1,2	2,5	1,3	2,0
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	1,8		2,6	3,5	3,5	3,1	2,8
- Enplegua (**)	-2,6	-2,0	-1,4	-1,6	-1,3	-2,0	-3,3

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Eskaintzaren ikuspegitik, ekoizpen adar guztiek beren emaitzak okertu zituzten. Azpimarratzekoak dira, bilakaera txarra jaso zutelako, industria eta eraikuntza. Lehenengoak tasa negatiboak jaso zituen, sei hiruileko jarraian hazkunde positiboak lortu eta gero. Bigarrenak, berriz, jaitsiera areagotu zuen. Jardueraren ahultasuna lan merkatura igaro zen eta enplegu galera %3,3ra zabaldu zen, 2010eko hasieratik jaso den emaitzarik txarrenea baita.

Lanpostuen galera adar guztietan handitu zen eta, horren ondorioz, lanaldi osoko 570.000 postu galdu ziren urtebete bateko epean. Prezioen bilakaerari dagokionez, langabezia tasaren goranzko joeratik urrunduta, inflazioak beheranzko joerari eutsi zion. Hain zuzen ere, 2011ko apirilean %3,8ko igoera jaso ondoren, 2012ko otsailean KPI indizearen urte arteko tasa %1,9ra jaitsia zen.

Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren datuen arabera, administrazio publikoek 91.344 milioi euroko defizita izan zuten 2011. urtean. Desoreka hori BPGren %8,51ren baliokidea da. Datuek baieztatzen dute kontu publikoetako desorekak 2,51 puntutan gainditu zuela Espainiako Gobernuak Europako Batzordearekin hartu zuen konpromisoa, alegia, BPGaren defizita %6ra jaistearena. Kontabilitate nazionalako terminoetan, administrazio publiko guztiek zenbaki gorriak zituzten urte amaieran.

Ekoizpena eta eskaria

Eustatek 2011ko laugarren hiruhilekorako argitaratu zituen hiruhilekako kontuen datuek baieztatzen dute EAEko ekonomia beste narriadura aldi batean murgilduta dagoelako beldurra. EAEko barne produktu gordinak moteltzeko joera erakutsi zuen urte osoan zehar eta azken hiruhilekoko hazkundea %0,2an estimatu zen, aurreko hiruhilabetekoa baino lau hamarren txikiagoa baita. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ekonomiaren batez besteko hazkundea %0,6 izan zen 2011. urtean. Eustatek laugarren hiruhilekorako argitaratu dituen zenbateko horiek inflexio gunea dira EAEko ekonomiaren bilakaeran, zortzi hiruhilekoz jarraian emaitza txikiak baina positiboak jaso ondoren hiruhileko arteko tasa %-0,2an kokatu baitzen. Ekonomiaren apaltze bizi hori barne eskaria osatzen duten aldagai guztien ahultasun sakonak eragin du.

Eskaintza aztertuta, eta salbuespena lehen arloa delarik, gainontzeko arlo guztiek narriadura zantzu garrantzitsuak erakutsi zituzten 2011ko azken hiru hilekoetan. Izan ere, balio erantsi gordinaren hazkundera eginiko ekarpena %0,1ean kokatu zen, 2010eko lehen hiruhilekotik jaso den txikiena baita. 2011 osorako, agregatu horren urte arteko gehikuntza tasa %0,7 izan zen. EAEko ekonomiak bizi duen apaltze sakona are garbiagoa izan zen industrian eta zerbitzuetan, azken kasu horretan, bereziki administrazio publikoak eskaintzen dituen zerbitzuetan. Beherakada hori merkaturatzen ez diren zerbitzuek inoiz jaso duten handiena da. Datu horien oinarrian, defizit publikoari buruzko helburuak lortzeko aurrekontuetan egin diren murrizketak daude.

Eskariaren ikuspegitik, arlo publikoak aurrekontuetan bideratu dituen hersturako politikek barne eskariak BPGaren hazkundeari egiten dion ekarpena azkar jaitea eragin zuten. Narriadura handi horretan, agregatuaren gainontzeko osagaiek ere parte hartu zuten. Ekonomia ingurunearen baldintzek eta kontsumitzaileek zein enpresariak galdutako konfiantzak kontsumo erabakiak eta inbertsioko proiektuak atzerarazi zituzten. Horregatik guztiarengatik, barne eskariak laugarren hiruhilekoan %1,0ko jaitsiera izan zuen urte arteko tasan eta urte osoan, berriz, %-0,1ko aldakuntza tasa.

EAE-KO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2010		2011		
			IV	I	II	III	IV
Barneko azken kontsumoa	1,2	0,3	1,4	0,9	0,5	0,3	-0,4
- Familien gastua kontsumoan	0,9	0,6	1,3	0,8	0,3	0,9	0,5
- Herri administrazioen gastua	2,3	-0,8	1,5	1,3	1,3	-2,0	-3,6
Kapital eraketa gordina	-6,0	-1,5	-3,1	-1,8	-1,0	-0,2	-2,8
Barne eskaria	-0,5	-0,1	0,2	0,3	0,2	0,2	-1,0
Esportazioak	7,6	9,0	10,0	13,3	3,2	12,4	7,3
Inportazioak	5,5	7,4	8,5	11,6	2,1	11,1	4,9
BPG (m.p.)	0,3	0,6	0,8	0,9	0,8	0,6	0,2
Lehen arloa	24,7	-7,6	48,2	-13,9	-16,0	-21,6	16,9
Industria	1,8	2,1	2,8	3,7	3,3	1,5	-0,2
Eraikuntza	-9,8	-5,3	-7,9	-4,6	-5,6	-6,0	-4,8
Zerbitzuak	0,6	0,9	0,5	0,8	1,0	1,3	0,6
Balio erantsi gordina	0,1	0,7	0,6	1,0	0,9	0,6	0,1
Ekoizkinen zerga garbiak	2,0	0,2	2,0	0,0	-0,5	0,3	0,9

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Ekoizpen jarduera

Nekazaritza eta arrantza biltzen dituen sektoreak hobekuntza nabarmena lortu zuen 2011ko azken hiruhilekoan, urte arteko tasan %16,9ko hazkundera baita. Hala ere, laugarren hiruhilekoaren datu onek neurri txiki batean bakarrik konpentsatu zuten urte horretako gainontzeko hilekoetan nozitu zuen beherakada handia. Horiek horrela, lehen arloak %-7,6ko tasa jaso zuen 2011. urte osorako.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011				2012	
			I	II	III	IV	Urt.	Otsa.
Industria								
Balio erantsi gordina	1,8	2,1	3,7	3,3	1,5	-0,2	---	---
Industria produkzioaren indizea (*)	2,3	1,0	3,8	1,8	0,1	-1,7	-2,4	---
Industria giroaren indizea	-20,3	-12,3	-8,7	-9,0	-15,5	-15,8	-17,4	---
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	69,8	75,1	72,1	75,0	74,8	78,6	---	76,4
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-4,3	-2,2	-2,3	-1,8	-2,2	-2,6	-2,9	-3,2
Eraikuntza								
Balio erantsi gordina	-9,8	-5,3	-4,6	-5,6	-6,0	-4,8	---	---
Eraikuntzaren indizea	-16,9	-10,4	-7,1	-15,2	-4,7	-13,2	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak	-1,4	-8,3	10,6	2,1	7,8	-53,6	10,0	---
Etxebizitzaren salerosketak	25,4	-20,0	-1,5	-27,6	-31,9	-18,9	-8,1	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-7,5	-8,6	-7,3	-8,4	-9,1	-9,7	-10,2	---
Zerbitzuak								
Balio erantsi gordina	0,6	0,9	0,8	1,0	1,3	0,6	---	---
Hegazkinen bidezko trafikoa	5,3	2,7	0,7	2,3	4,8	3,0	0,8	-1,1
Hoteletan igarotako gaualdiak	12,3	5,1	7,2	7,8	6,6	-1,0	3,6	-7,2
Hoteletako okupazioa	43,7	45,9	33,9	48,1	61,1	40,5	29,6	32,0
Negozio zifren indizea	2,8	-0,9	2,3	-1,2	-0,4	-4,1	-1,8	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	0,9	0,9	1,4	1,2	0,6	0,3	-0,2	-0,4


(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.


EAEko industriak moteltzeko joera bizia erakutsi zuen 2011ko laugarren hiruhilekoan. Balio erantsi gordinak %0,2 egin zuen behera aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta. Horren ondorioz, eta urteko batez bestean, industriak %2,1eko hazkundea izan zuen. Bizitasun handiko lehen seihilekoaren ondoren, sektorearen bilakaerak inflexio gune bat aurkeztu zuen, bigarren seihilekoan moteltze bizia ekarri zuena eta urteko azken hiru hilekoetan hazkunde tasa negatibo bat utzi zuena. Eskura dauden eta industriaren bilakaera aztertzen duten koiunturako adierazle guztiek jardueraren jaitsiera hori erakutsi zuten, neurri handiagoan edo txikiagoan. Industria produkzioaren indizeak okerrera egin zuen laugarren hiruhilekoan. Epealdi horretan, ekipamenduko ondasunen ekoizpenak bakarrik izan zuen hazkunde garrantzitsu bat. Gainontzeko taldeek, hots, kontsumorako ondasunen, bitarteko ondasunen eta, bereziki, energiaren ekoizpena oso nabarmen gutxitu ziren.

Ekonomia arloen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasak


Industria




IPI (ziklo-joera)




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eustat.

Industriaren adarrak aztertuta, 2011ko laugarren hiruhilekoan ia orokorra izan zen narriadura gertatu zen jarduera guztietan. Hazkunde biziari eutsi zioten bakarrak material eta ekipamendu elektronikoa, makineria eta ekipamendua, eta garraio materiala izan ziren. Bereziki handiak izan ziren energia alorrekin zerikusia duten jarduerak jaso zituzten urte arteko aldakuntza tasa negatiboak.

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak enpresarien iritziez egiten duen inkestaren urriko eta azaroko datuek industria giroaren okertze sakona erakusten dute. Izan ere, industria giroaren indizea, urteko lehen hilabeteetako hobekuntza itxaropentsuaren ondoren, urte amaieran 2010eko balioetara itzuli zen, beheranzko joera garbi batekin. Atzera pausoaren oinarrian, eskari zorroz eta ekoizpenaren mailaz dituzten igurikimen okerragoak daude. Beste aldetik, ekoizteko ahalmenaren erabilera graduak igoera txiki bat izan zuen eta krisiaren aurreko mailetatik hurbil kokatu zen.

Eraikuntzak leuntzeko joera marraztu zuen berriro bere narriadura sakonean, baina oraindik %4,8ko beherakada jaso zuen 2011ko azken hiru hilekoetan. Urteko batez bestean, sektorearen narriadura %-5,3ra iritsi zen. Higiezinaren merkatuaren doikuntza traumatikoa gertatzen ari da eta amaiera oraindik urrun dagoela ematen du. Saldu gabeko etxebizitzaren kopuru handiak, lan merkatuaren egoera txarrak, kreditua emateko orduan banku sistemak jartzen dituen oztopoak eta etxebizitzek gaur egun duten prezioak zailago egiten dute etxegintzaren eskaintza eta eskaria doitzea.

Koiunturako adierazle batzuek ere egiaztatu zuten eraikuntza alorreko narriadura hori. Esate baterako, etxebizitzaren salmenta %20aren inguru jaitsi zen 2011ko azken hiruhilekoan, hala bigarren eskuko bizitegien atalean nola, bereziki, eraiki berrienetan. Bide beretik joan zen etxebizitza bat erosteko eman ziren hipoteken kopurua, %30aren inguruan beheratu zirelako epealdi berean. Halaber, hipoteka horietan zehaztu zen kapitala ere %20 gutxiago zen urte arteko tasan. Beste alde batetik, hiruhilekako kontu ekonomikoek eskainitako informazioak argitzen du jarduera adar horretan enplegu galera %9,7ra iritsi zela, serie historiko osoan inoiz jaso den beherakada handiena baita. Gizarte Segurantzako afiliazioak jaitsiera bera izan zuen eta 2012ko lehen hilekoetan ere galera horrek jarraipena izan du. EAEk higiezinaren jardueran pairatzen duen desoreka seinatzen duen beste adierazle bat Eustatek argitaratzen duen eraikuntzaren koiuntura indizea da, egutegiaren eragina zuzenduta duen serieak %13,2ko beherakada estimatu zuelako 2011ko azken hiruhilekoan. Adierazle horrek eskaintzen dituen datuen analisiak eraikuntzaren narriadura erakusten du, hala eraikinen atalean nola obra zibilean.

Lehen arloarekin batera zerbitzuek bakarrik egin zioten ekarpen positibo bat EAEko balio erantsi gordinaren hazkundeari 2011ko laugarren hiruhilekoan, baina aldakuntza tasa hori moteltzeko joera arin batean kokatuta dagoen. Hain zuzen ere, jarduera adar horrek %0,6ko hazkundera izan zuen urte arteko tasan. Egia esanda, merkaturatzen diren zerbitzuek lortu zuten hazkunde positibo hori epealdi horretan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean %0,8ko aldakuntza tasa bat lortuta. Aitzitik, merkatuaren bidez esleitzen ez diren zerbitzuek %0,3ko jaitsiera txikia pairatu zuten 2011ko azken hilekoetan. Serie historiko osoan ez zen lehenago horrelako tasa negatiborik jaso.

Zerbitzuek izan zuten bizitasun galera jarduera adierazle batzuetan hauteman zen. Izan ere, Espainiako Estatistika Erakundeak (INE) argitaratzen duen negozio zifrak beherakada garrantzitsua iradoki zuen EAEko zerbitzuetan, 2011ko laugarren hiruhilekoan %-3,9an kokatu baitzen. Lan merkatuak ere sektorearen apaltzea islatu zuen eta laugarren hiruhilekoan oso enplegu sorrera txikia jaso zuen.

Eustatek argitaratzen duen barne merkataritzako indizea, termino errealean neurtuta eta egutegiaren eragina zuzenduta, %3,2 jaitsi zen urriaren eta abenduaren artean, aurrekoko urteko epealdi beraren aldean. Merkataritzaren narriadura txikizkako salmentetan zein handizkakoetan gauzatu zen. Beherakada horretatik kanpo geratu ziren eta hazkunde tasa positiboak jaso zituzten adar bakarrak nekazaritzako eta elikatzeiko ekoizkinak, eta makineria eta ekipamendua izan ziren, biak handizkako merkataritzako atalak baitira. Turismoari dagokionez, argitaratu diren koiunturako datuek moteltzeko joera arina erakusten dute sektore horretarako. Bereziki esanguratsuak izan ziren laugarren hiruhilekoan gaurdiek izan zuten jaitsiera, nagusiki Estatuko gainontzeko erkidegoetatik etorritako bidaiariena, eta aireko trafikoaren moteltzea, EAEko aireportuetatik igaro diren bidaiarien kopuruak adierazten duen bezala.

Eskariaren osagaiak

Barneko azken kontsumoak jaitsiera txikia izan zuen 2011ko laugarren hiruhilekoan eta apaltzeko joera leuna erakutsi zuen. Horren ondorioz, azken kontsumoan eginiko gastuak urritik abendura bitarteko epealdian %-0,4ko aldakuntza tasa jaso zuen. Hala gastu pribatuak nola, bereziki, administrazio publikoetako kontsumoak indarra galdu zuten iazko azken hilabeteetan. Familiek hiruhileko horretan egin zuten kontsumoa %0,5 areagotu zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago. Hala eta guztiz ere, beherakada handiena arlo publikoak kontsumoan eginiko gastuan gertatu zen, urte arteko tasa %-3,6an kokatu

baitzen laugarren hiruhilekoan. Administrazio publikoetako aurrekontuetan dauden arazoak eta ondorengo murrizketak daude uzkurdua horren oinarrian.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011					
			I	II	III	IV	Urta.	Otsaila
Kontsumo pribatua								
Hiruhilekako kontuen estimazioa	0,9	0,6	0,8	0,3	0,9	0,5	---	---
BMI txikizkaria	-0,5	-3,8	-5,2	-3,7	-2,9	-3,3	---	---
Azalera handiko merkataritza indizea (*)	-0,9	-5,1	-5,3	-4,6	-5,2	-5,5	-4,0	-3,7
Landunak txikizkarian	0,2	-1,7	-1,5	-1,7	-1,4	-2,0	---	---
Automobilen matrikulazioa (*)	-2,9	-24,5	-37,4	-37,9	-11,5	-11,0	-9,4	-9,1
Kontsumitzaileen konfiantza indizea	83,3	80,0	91,0	81,0	74,0	74,0	---	76,0
Kapital eraketa gordina								
Hiruhilekako kontuen estimazioa	-6,0	-1,5	-1,8	-1,0	-0,2	-2,8	---	---
IPI ekipamendua EAE (*)	1,0	5,0	3,2	5,1	6,1	5,6	4,3	---
IPI ekipamendua Espainia (*)	-1,0	0,8	3,5	2,8	0,8	-4,0	-6,2	---
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	4,7	1,4	0,5	-5,8	2,5	8,4	12,8	---
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-0,8	-17,3	-17,5	-20,1	-18,2	-13,5	-9,5	-7,4


(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.


EAEko familien kontsumoaren moteltzeari dagokionez, kontsumitzaileak bereziki zuhurrak agertu ziren gastatzeko orduan, ekonomia orokorraren eta, batez ere, lan merkatuaren etorkizuneko bilakaeraz dituzten igurikimen ezkorrengatik. Ziurgabetasun horrek zuhurtzia areagotu zuen eta erosteko erabakiak atzerarazi zituen. Kontsumo pribatuaren adierazle guztiek beheranzko joera hori erakutsi zuten. Izan ere, merkataritzako adierazleak eta turismoen matrikulazioak hazkunde tasa negatibotan kokatu ziren 2011ko laugarren hiruhilekoan ere. Beste aldetik, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak argitaratzen duen kontsumitzaileen konfiantza indizeak gelditasuneko egoera erakutsi zuen eta baita kontsumoa zein inbertsioa geroratzeko portaera bat ere. EAEko kontsumitzaileak ezkorrak dira ekonomia orokorraren bilakaeraz, familiaren ekonomiaren ahultasunaz eta lan merkatuan oraindik dagoen narriaduraz, uzkurdua hori denbora luzez iraungo duela aurreikusten baita.

Eskariaren osagaien bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak


Kontsumo publikoa




Kontsumo pribatua




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat.

Enpresarien inbertsioa modu esanguratsuan amildu zen 2011ko laugarren hiruhilekoan eta urte arteko tasan %-2,8ko beherakada jaso zuen. Berriro ere, eraikuntza nozitzen ari den doikuntza sakona galga garrantzitsua izan zen kapital eraketa gordinaren bilakaeran. Beste aldetik, ekipamenduko ondasunetan eginiko inbertsioak hazkunde tasa positiboak lortu zituen berriro. Hain zuzen ere, ondasun mota horren ekoizpen indizeak bizitasun handia erakutsi zuen, baina moteltzeko nolabaiteko joera marraztu zuen. Halaber, ekipamenduko ondasunen inportazioak %8,4 hazi ziren iazko azken hilekoetan. Oro har, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako enpresak ziurgabetasun handiko ingurune batean daude eta atzerriko merkatuak oraindik nolabaiteko sendotasuna erakusten badute ere, bai salmentak bai inbertsioa zertxobait apaldu dira azken hilabeteetan.

Kanpo saldoa

Ekonomia jardueraren narriadurak eragin negatiboa izan zuen munduko hazkundearen norabidean eta, bereziki, nazioarteko merkataritzaren bilakaeran, 2011ko azken hilabeteetan moteltze bizia jaso baitzuen. Hazkunde erritmo apalagoa bereziki ekonomia aurreratuetan hauteman zen eta, zehazkiago, Europan. Hala ere, garapen bidean dauden ekonomiek ere merkataritza salerosketen gehikuntza txikiagoa izan zela nabaritu zuten.


Zehazkiago adierazita, eta Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA) eginiko lehen estimazioen arabera, salgaien munduko esportazioen balioa %10,1 areagotu zen 2011ko azken hiruhilekoan, eta ia erdira murriztu zuen aurreko hiru hiruhilekoetan lortutako gehikuntza tasa. Dena dela, herrialde gehienek hazkunde positiboak jaso zituzten eta saldutakoaren balioak maila altuetan jarraitu zuen.

Europar Batasuna izan zen munduko hornitzaile behinena, merkatu kuotaren %32,6 bereganatuta. Zenbateko hori aurreko hiruhilekoarena baino zertxobait handiagoa da, eremu horretako ia herrialde guztietan (salbuespena Malta da) salmenten igoera apaldu bazen ere. Are gehiago, esportazioen moteltze hori jaitsiera bihurtu zen Kroazian, Finlandian eta Suedian (hurrenez hurren, %-13,1, %-10,8 eta %-1,7). Hala ere, gainontzeko herrialdeen bilakaera ona zen eta horri esker Europar Batasun osoaren esportazioak %4,9 areagotu ziren. Erakutsi zuten bizitasunagatik Europar Batasuneko kide berri batzuek eginiko salmentak azpimarratu behar dira, %10aren eta %25aren artean bizkortu zirelako (Lituanian %13,3, Estonian %15,0, Maltan %22,1 eta Letonian %25,5). Neurri txikiagoan, eremuaren salmenten guztizkoan pisu handiena duten herrialdeetako salmentak ere nabarmendu behar dira (Frantzia %5,9, Alemanian %4,9 eta Italian %4,7), hazkundeak askoz apalagoak izan baziren ere.


Ondasunen esportazioak

Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



Japonia



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea.

Garapen bidean dauden Asiako ekonomiek lortu zituzten hazkunde tasak handiagoak izan ziren, %7tik %16ra bitartekoak. Zenbaki horiek garrantzitsuak dira baina oso urrun daude 2010eko hasieran jaso ziren %25etik %30era bitarteko tasetatik. Hain zuzen ere, Txinak %14,3 areagotu zituen esportazioak 2011ko laugarren hiruhilekoan eta Indiak eta Hego Korea, hurrenez hurren, %10,9 eta %9,1.

EAEko ekonomiak ere erritmo galera hori nabaritu zuen eta zertxobait apaldu zuen atzerrian saldutakoaren hazkundera iazko laugarren hiruhilekoan. Hala eta guztiz ere, esportazioak %24,8 hazi ziren eta 5.800 milioi euroko langa gaintitu zuten. Inportazioak, ordea, %2,8 gutxitu ziren, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren beherakadak baldintzatuta. Bi emaitza horien ondorioz, eta kontuan hartuta salmenten balioa erosketena baino handiagoa izan zela, EAEko superabita 1.850 milioi eurotik gorakoa izan zen, aurrekaririk gabeko kopurua delarik.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK ATZERRIAN

	Urte arteko aldakuntza tasak						Mila € IV Tr 11
	2010	2011	2011				
			I	II	III	IV	
ESPORTAZIOAK							
Guztira	19,6	20,1	31,6	2,3	25,5	24,8	5.802.850
Energetikoak	22,7	55,9	212,8	0,2	11,1	104,8	927.077
Ez energetikoak	19,3	16,7	24,1	2,5	27,3	16,2	4.875.773
INPORTAZIOAK							
Guztira	25,5	12,1	32,9	10,5	11,5	-2,8	3.948.972
Energetikoak	24,6	13,0	54,0	12,9	9,9	-15,8	1.206.160
Ez energetikoak	26,0	11,7	22,4	9,2	12,3	4,4	2.742.812

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2011ko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.


Ekonomia eremuaren arabera, azpimarratzekoa da herrialde garatuetan saldutakoa, bereziki Frantziak (%86,4), Japoniak (%65,6) eta Erresuma Batuak (%44,3) egin zituzten erosketen gehikuntza. Aitzitik, ELGE erakundekoak ez diren herrialdeetara zuzendutako esportazioak gutxitu ziren. Saldu ziren ekoizkinei dagokienez, eta ekipamenduko ondasunen eta metal arrunten nagusigoa alde batera utzita, energiako produktuen esportazioak izan zuen gorakada garrantzitsua nabarmendu behar da, saldutakoaren %16 bereganatu zutelako, ordura arte atal horrek inoiz jaso zuen ehunekorik handiena baita. Inportazioen bilakaera hiru talde horiek ere baldintzatu zuten, alderantzizko bilakaera erakutsi zuten arren.

Antza denez, Europar Batasuneko jarduera ekonomikoak bizi zuen moteltzeak ez zien kalterik egin EAEko eragileen produktuei. Izan ere, Europar Batasuna berriro izan zen EAEko esportazioen helburu nagusia eta merkatu kuotaren %68 baino gehiago bereganatu zuen, 2008tik inoiz izan duen zatirik handiena baita. Alemaniako, Frantziako eta Erresuma Batuko ekonomien egonkortasunak eremuan saldutakoa %34,4 areagotu izana lagundu zuen. Tasa


horrek adierazten du Europar Batasunak 3.964 milioi euro balio zuten EAEko ekoizkinak erosi zituela, gaur arte inoiz erosi duten kopururik handiena. Esportazio horien %20 baino gehiago Alemaniak eta Erresuma Batuak bereganatu zuten, bereziki burdinaren galdaketa eta beraren manufakturen, ibilgailuen, eta makinak eta tresna mekanikoen erosketei esker. Azken talde horrek %25,4 areagotu zuen salmenta, gutxienez 2002. urtetik jaso den tasarik gorena baita. Hala eta guztiz ere, EAEko produktuen kontsumitzaile nagusia Frantzia izan zen, esportazio guztien %25,1 bereganatu zuelako. Hain zuzen ere, Frantziak EAEn gastatu zituen 1.458 milioi euroetatik 621,7 milioi erregai mineralak erostera zuzendu zituen (azken urteetan batez beste erosten zuena bederatzi aldiz biderkatu zuen). Salmenta horren ondorioz, produktu mineral eta energetikoen atalak %104,8ko igoera lortu zuen, berriro gertatzea zaila izango den ezohiko gehikuntza batean.

Ondasunen esportazioak eta inportazioak ekoizkin motaren arabera Ehunekoak

Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat. 2011ko laugarren hiruhilabeteko datuen arabera.

EAEko ekonomia gutxiago hazi izanak Europar Batasunetik ekarritako inportazioak baldintzatu zituen. EAEko eragileek erosi zituzten ibilgailu guztien %87 eremu horrek saldu bazituen ere –haietatik erdia baino gehiago Alemaniak saldu zituen-, metal arruntak eta beren manufakturen erosketak izan zuen murrizketa gordinak (%6,2 gutxitu ziren) eta, neurri txikiagoan, makinak eta tresna mekanikoenak eremu horretan eginiko erosketak %6,0 baino ez igotzea ekarri zuen, hots, aurreko hiruhilekoaren ia erdia hazi ziren.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN HELBURUA ETA JATORRIA

	Urte arteko aldakuntza tasak						Mila € 2011 IV	Guztiarekiko ehunekoak
	2010	2011	2011					
			I	II	III	IV		
Esportazioak								
ELGE	21,1	27,3	38,8	8,0	32,8	33,2	4.630.795	79,8
Eurogunea	22,3	26,2	30,1	6,5	35,9	34,2	3.290.550	56,7
Europako kide berriak	26,4	29,4	29,2	4,4	64,9	23,2	269.048	4,6
Europar Batasuna 27	22,3	26,3	32,3	4,9	36,4	34,4	3.964.634	68,3
Errusia	49,2	27,6	74,0	20,3	18,4	12,6	60.825	1,0
Txina	55,9	17,4	17,5	31,7	-2,2	30,8	127.028	2,2
Brasil	54,0	57,0	262,3	16,2	-10,3	-26,7	80.544	1,4
Inportazioak								
ELGE	24,7	9,8	9,7	6,2	12,4	11,7	2.522.140	63,9
Eurogunea	22,5	9,4	15,6	-3,4	18,6	9,6	1.697.224	43,0
Europako kide berriak	9,0	19,5	58,3	-13,1	52,6	-3,7	116.760	3,0
Europar Batasuna 27	23,3	7,7	15,5	-0,6	11,5	6,0	2.000.745	50,7
Errusia	36,7	15,4	105,5	61,5	-17,9	-54,8	318.432	8,1
Txina	24,0	3,1	17,4	4,7	-9,7	4,3	211.841	5,4
Brasil	23,0	5,5	6,9	39,0	-39,8	3,7	14.184	0,4

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2011ko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administraziooko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

EAEko esportazioak AEBetako merkatura sei hiruhilekoz jarraian igo eta gero, 2011ko azken hiruhilekoan salmentek behera egin zuten. Erregai mineralen erosketa 2011ko bigarren hiruhilekoan kontabilizatutako 202 milioi euroetatik laugarrenean bildutako 100 milioira jaitsi ziren. Orobat, burdinaren galdaketa eta beraren manufakturen erosketa –bi atal horiek herrialdeak erosi duen guztiaren %52 baino gehiago bereganatzen dute- oso nabarmen apaldu zen. Horregatik guztiarengatik EAetik AEBetara esportatutakoaren balioa %1,1 jaitsi zen. Hala eta guztiz ere, datu esanguratsuena inportazioen aldetik iritsi zen, EAEko eragileek herrialde hartan erositakoa %121,5 areagotu zelako. Salmentetan ez bezala, erregai mineralak izan ziren erosketen bultzatzaileak eta atal horri esker inportazio guztiak 186 milioi eurora iritsi ziren.

ELGE erakundean parte hartzen ez duten herrialdeekiko merkataritza harremanak ez ziren bereziki onak izan eta eremu horretara esportatutakoa %0,1 jaitsi zen. Neurri handi batean, garraio materialaren salmentak gutxitu izanak azaltzen du zergatik moteldu diren Errusiara bidalitako esportazioak. Halaber, Brasilek ere nabarmen gutxitu zuen garraio materialaren

eskaera (2011ko bigarren hiruhilekotik, ibilgailuen salmenta %75 baino gehiago jaitsi da), beraren uzkurdura %26,7ra areagotuz. Txinak, berriz, ibilgailuen eta makinak eta tresna mekanikoen erosketa handitu zuen eta horren ondorioz Asiako erraldoira bidalitako esportazioak %30,8 areagotu ziren, azken sei urtean lortutako batez bestearekin bat datorren tasa bat delarik.

Inportazioei dagokienez, Txina eta Brasil nabarmendu ziren makina eta tresna elektrikoen, eta burdinaren galdaketaren salmentarengatik. Horri esker, EAEra esportatutakoa hazi egin zen eta tasa positiboak berreskuratu zituzten. Zehazkiago adierazita, Txinatik iritsitako inportazioak %4,3 areagotu ziren eta Brasiletik etorriak, berriz, %3,7. Azkenik, Errusiak ikusi zuen nola bere diru iturri nagusia, hots, energiako ekoizkinen salmenta, oso nabarmen jaitsi zen, EAEko eragileek produktu horietako zati handi bat AEBetan erostea erabaki zutelako. Hori dela eta, Errusia EAErako energia hornitzaile nagusia izatetik, %60aren inguruko ehunekoa bilduta, %19,4 bakarrik hornitzera igaro da eta, horren ondorioz, bertatik inportatutakoaren balioa %54,8 murriztu da.


Lan merkatua

EAEko ekonomiak bizi duen hazkunde ahularekin bat eginez, lan merkatuak ez zuen egonkortasuneko zantzurik erakutsi eta, are gehiago, enpleguaren galera iazko bigarren erdian areagotu zen. Hori horrela izanda, lanik gabeko pertsonen kopuruak gora egin zuen laugarren urtez jarraian, 2010. urtean zehar susperraldia iragartzen zuten zantzu batzuk hautematen hasi bazen ere.


Oro har, lan merkatua aztertzen duten adierazle ia guztiek, salbuespena BJA inkesta da, seinalatzen dute laugarren hiruhilekoan enplegu galera oso nabarmen areagotu zela. Eustaten inkestak dagoeneko hirugarren hiruhilekoan jaso zuen narriadura sakon bat eta horren ondorioz 2011ko urteko balantzea lau estatistika nagusietako negatiboena izan da, urteko batez bestean enplegua %1,2 gutxitu zelako. Beste aldetik, Eustatek argitaratzen dituen kontu ekonomikoek adierazten dute enplegua %1,3 murriztu zela iazko azken hiruhilekoan, beraz 12.500 lanpostu galdu ziren azken hamabi hilekoetan. Hala eta guztiz ere, urteko batez bestean lan merkatuaren narriadura zertxobait arinagoa izan zen 2011n aurreko urtean baino, zeren eta %-0,9tik %-0,6ra murriztu baitzen. Gizarte Segurantzako afiliazioak antzeko zenbakiak eskaini zituen, hala urteko batez bestean nola hiruhilekako banaketan. Zoritzarrez, erakunde horrek 2012ko lehen bi hilekoetarako eskaini duen informazioak iradokitzen du enpleguaren galera areagotu dela.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzza eta INE.

Kontu ekonomikoen analisiak seinalatzen du enpleguaren jaitsiera orokorra izan zela, zerbitzuetan izan ezik. Hain zuzen ere, eraikuntzak berriro galdu zuen, proportzioz, enplegu gehien (%-9,7), krisia hasi zenetik egiten ari den doikuntzari jarraipena emanez. Hipoteken merkatuaren ahultasuna eta administrazio publikoaren inbertsioaren murrizketari lotutako obra zibilarren jaitsiera bizia dira emaitza txar horien atzean dauden arrazoiak. Industriak, berriz, eraikuntzari erreleboa hartu ezinik, enplegu galera areagotu zuen azken hiruhilekoan (%-2,4 laugarrenean eta %-2,1 hirugarrenean), urte osoko bilakaera 2010. urtekoa baino hobea izan zen arren. Eraikuntzaren narriadurak, enpresek finantzazioa aurkitzeko dituzten zailtasunek,

kontsumoaren ahultasunak eta inguruneko ekonomien moteltzeak industria kaltetu zuten. Azkenik, zerbitzuek bakarrik lortu zuten enplegu garbia sortzea, baina oso kantitate txikian egin zuten (%0,2).

Enpleguaren eta barne produktu gordinaren bilakaera kontuan hartuta, produktibitatearen igoera nahiko garrantzitsua izan zen (%1,5 azken hiruhilekoan), urtean zehar goranzko joera etengabea erakutsi zuen. Hala eta guztiz ere, susperraldi horren oinarrian enpleguaren galera dago eta ez ekoizteko prozesuetan ezarritako hobekuntza bat. Horregatik nabarmendu da eraikuntzak lortu duen produktibitate irabazi handia (%5,4), industriarena (%2,3) baino are biziagoa izan baita, eraginkortasuneko hobekuntza handienak lortu ohi dituen sektorea azken hori izan bada ere. Azkenik, zerbitzuek oso irabazi xumeak (%0,4) lortu zituzten, ohiko emaitzen ildotik.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011			
			I	II	III	IV
Enplegua guztira	-0,9	-0,6	-0,1	-0,4	-0,7	-1,3
<i>Ekoizkortasuna guztira</i>	1,2	1,2	1,0	1,2	1,3	1,5
Enplegua lehen arloan	-1,0	-3,9	-5,9	-4,5	-2,9	-2,2
<i>Ekoizkortasuna lehen arloan</i>	26,0	-3,9	-8,5	-12,0	-19,3	19,5
Enplegua industrian	-3,6	-1,9	-1,7	-1,5	-2,1	-2,4
<i>Ekoizkortasuna industrian</i>	5,6	4,1	5,5	4,9	3,7	2,3
Enplegua eraikuntzan	-6,9	-7,8	-5,8	-7,6	-8,0	-9,7
<i>Ekoizkortasuna eraikuntzan</i>	-3,1	2,7	1,3	2,2	2,2	5,4
Enplegua zerbitzuetan	0,9	0,9	1,5	1,1	0,7	0,2
<i>Ekoizkortasuna zerbitzuetan</i>	-0,3	0,0	-0,7	-0,1	0,6	0,4

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

BJA inkestaren 2011ko datuek baieztatzen dute landunen beherakada, neurri handi batean, enplegu publikoaren murrizketak (%-5,0) eragin zuela, urtetan etengabeko gehikuntzak jaso ondoren, autonomia erkidegoetan eta udaletan ezarri diren egonkortasunen egitasmoen ondorioz. Enpleguaren murrizketa hori gizonen artean eta gazteen artean fokatu zen berriro eta bi kolektibo horietako enplegu tasak behera egin zuen berriz. Aitzitik, emakumeen enplegu tasa zertxobait igo zen 2011. urtean, baina oraindik gizonen tasatik hamar puntu luze beherago dago.

PARTAIETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

Ehunekoa

	2010	2011	2011			
			I	II	III	IV
Partaidetza tasa guztira	55,9	56,2	56,3	56,6	56,0	55,8
- Gizonak	64,0	63,2	63,9	63,4	63,1	62,5
- Emakumeak	48,3	49,5	49,1	50,0	49,3	49,4
- 16 urtetik 24ra	31,9	30,3	31,8	31,4	29,8	28,1
- 25 urtetik 44ra	87,3	87,6	87,7	88,1	87,8	87,0
- 45 urte eta gehiago	39,3	40,2	40,1	40,4	39,9	40,4
Enplegu tasa guztira	50,8	50,1	50,3	50,4	50,1	49,5
- Gizonak	57,8	56,1	56,8	56,8	56,0	54,9
- Emakumeak	44,2	44,4	44,1	44,4	44,5	44,4
- 16 urtetik 24ra	23,9	23,0	23,4	24,0	23,3	21,3
- 25 urtetik 44ra	78,9	77,1	77,4	77,5	77,4	75,9
- 45 urte eta gehiago	36,8	37,2	37,2	37,3	36,9	37,3
Langabezia tasa guztira	9,2	10,8	10,7	10,9	10,6	11,2
- Gizonak	9,6	11,3	11,2	10,5	11,3	12,1
- Emakumeak	8,6	10,3	10,2	11,3	9,8	10,1
- 16 urtetik 24ra	25,1	24,0	26,3	23,7	21,7	24,2
- 25 urtetik 44ra	9,6	12,1	11,7	12,0	11,8	12,7
- 45 urte eta gehiago	6,6	7,5	7,3	7,7	7,5	7,6

Iturria: BJA (Eustat).

EAEko ekonomiaren moteltzeak nolabaiteko etsipena eragin zuen biztanleria aktiboarengan, azken bi hiruhilekoetan behera egin zuelako. Izan ere, biztanleria osoaren partaidetza tasa motelduz joan zen bigarren hiruhilabeteko %56,6tik 2011ko azken laurdeneko %55,8ra. Dena dela, urteko batez bestea aurreko urteko balioa gaingitu zuen hiru hamarrenetan. Berrito ere, bilakaera kontrajarriak hautematen dira generoaren arabera eta emakumeek jarraitzen dute lan merkatuan sartzen (lan egiteko adina duten emakume guztietatik %49,5 prest daude lan egiteko) gizonen artean kontrako joera ikusten den bitartean, beraien partaidetza tasa laugarren hiruhilekoan %62,5era jaitsita. Enplegu bat lortzeko aukera urriek eragina dute gazteen artean eta urtea aurrera zihoan heinean lan merkatutik aldendu ziren. Beraz, lehen hiruhilekoan lan egin nahi zuten gazteak 16 eta 24 urte bitarteko guztien %31,8 bazen, ehuneko hori %28,1era jaitsia zen 2011ko azken hiruhilekoan. Guztiz kontrako joera hauteman da adin nagusieneko taldean, zeren eta bere partaidetza tasa ia puntu oso bat igo baitzen aurreko urteko datuaren aldean (%39,3tik %40,2ra).

Biztanleria aktiboaren jaitsiera horrek ez zuen eragotzi langabezia tasak gora egitea eta laugarren hiruhilekoan 2001eko hasieratik inoiz jaso den baliorik gorena (%11,2) jasotzea, lanik gabeko pertsonen kopuruak oso gorakada garrantzitsua ezagutu zuelako. Berritro ere, begi bistakoa da adinaren eta langabezia tasaren artean dagoen lotura estua, zeren eta 25 urtetik beherako gazteen langabezia tasa %24,0 izan bazen, 25 eta 44 urte bitarteko taldean adierazle hori ia erdian (%12,1) kokatu zen eta, azkenik, adin handieneko taldean langabezia tasa %7,5ean geratu zen. BJA inkestaren arabera, langabezia tasa txikiagoa zen emakumeen artean (%10,1) gizonen artean (%12,1) baino eta Europar Batasuneko batez bestea puntu luze batean gaitinditzen du.


LANGABEZIAREN BILAKAERA

Mila lagun eta tasak

	2010	2011	2011			
			I	II	III	IV
Langabeak BJA inkestaren arabera	95,9	114,1	113,1	114,9	111,4	116,9
Langabeak BAI inkestaren arabera	110,7	127,1	123,5	122,4	129,1	133,5
Langabeak SEPEren erregistroetan	132,4	145,1	146,7	148,6	140,9	144,3
Langabezia tasa BJA inkestaren arabera	9,2	10,8	10,7	10,9	10,6	11,2
Langabezia tasa BAI inkestaren arabera	10,5	12,0	11,6	11,6	12,2	12,6

Iturria: Eustat, INE eta SEPE.

Langabezia tasaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Enplegua arautzeko dosierrei dagokienez, 2010. urtean bezala, beherakada garrantzitsua ezagutu zuten (%-22,3 eta %-21,7, hurrenez hurren). Oso bestelakoak izan ziren 2009ko datuak, urte hartan egin baitzen enpleguaren doikuntza handiena eta dosierren kopurua bost aldiz biderkatu zen. Hala ere, 2011ko azken hilekoetan eta 2012ko hasieran dosierren kopuruak gora egin du berriro, bereziki industrian, guztizkoaren bi herenak sektore horretakoak baitira. Halaber, azpimarratu behar da kontratua amaitzeko dosierrek pisu handiagoa dutela zerbitzuetan eta urte hasieran mota horretako dosierrek industrian duten ehunekoa gainditu dutelako (%50,0 zerbitzuetan eta %42,7 industrian).

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

	2010	2011	2011				2012
			I	II	III	IV	Urtarrila
Dosierren kopurua	1.993	1.560	380	367	268	545	185
Eragindako langileak	35.426	22.072	5.588	4.337	4.733	7.414	3.215
<i>Dosier mota</i>							
- Lanaldia murriztekoa	1.051	2.203	365	417	473	948	219
- Behin-behineko etetea	32.349	17.991	4.938	3.603	3.781	5.669	2.614
- Kontratua amaitzekoa	2.026	1.878	285	317	479	797	382

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Aldibaterakotasun tasa hiru hamarren gutxitu zen iazko azken hiruhilekoan eta, horren ondorioz, urteko batez bestea aurreko urtekoa baino zertxobait txikiagoa izan zen (%20,1 eta %20,2). Enpleguaren galerak eragina izan zuen bai kontratu finkoa zutenengan bai aldi baterako kontratua zutenengan, baina askoz gehiago azken kolektibo horretan (hurrenez hurren, %-0,9 eta %-1,6) eta horrek lagundu zuen aldibaterakotasuna gutxitzen.

Urteko bigarren erdiko narriadurak igurikimenak okerragotu zituen eta horren ondorioz enpresariak atzera egin zuten langile gehiago kontratatzeko orduan. Hala ere, SEPEren datuen arabera, kontratu gehiago sinatu ziren 2011. urtean aurreko urtean baino (%2,2), baina igoera ez zen 2010ekoa bezain handia (%5,6) izan, barne produktu gordina hiru hamarren gehiago hazi zen arren. Kontratu mugagabeek azken urteetako mailarik apalena markatu zuten eta urte osoan sinatutako kontratu guztietatik %3,4 baino ez dira, aurreko urteetako kopuruaren oso azpian. Kontratu mugagabeen beherakada hori lanaldi osoko kontratuetan (%-13,4) eta lanaldi laburreko kontratuetan (%-13,2) izan zuen eragina.

ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2010	2011	2007	2008	2009	2010	2011
GUZTIRA	688.717	704.152	4,1	-5,2	-17,8	5,6	2,2
Lanaldi osoko mugagabeak	17.136	14.838	31,3	-8,7	-32,0	-7,3	-13,4
Obra edo zerbitzukoak	146.751	152.614	0,7	-11,4	-21,1	8,1	4,0
Abagunekoak	175.256	170.103	5,1	-9,4	-28,0	11,1	-2,9
Lanaldi laburrekoak	234.992	246.635	3,3	-1,3	-9,7	5,0	5,0
Prestakuntzakoak (*)	5.224	5.367	-4,2	-13,0	-37,7	8,1	2,7
Besteak	109.358	114.595	4,8	7,9	-6,6	-1,9	4,8

(*) Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.
Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, SEPEko datuetan oinarrituta.

KONTRATU MUGAGABEEN BILAKAERA

	2009		2010		2011	
Ohiko mugagabeak	13.945	2,14	12.499	1,81	11.870	1,69
Mugagabe berriak	4.365	0,67	4.431	0,64	2.793	0,40
Lanaldi osoko beste mugagabeak	171	0,03	206	0,03	175	0,02
Lanaldi osoko mugagabe guztiak	18.481	2,83	17.136	2,49	14.838	2,11
Lanaldi laburreko mugagabeak	11.075	1,70	10.566	1,53	9.170	1,30
Mugagabeak guztira	29.556	4,53	27.702	4,02	24.008	3,41
Kontratu berriak guztira	652.115	100,0	688.717	100,0	704.152	100,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, SEPEko datuetan oinarrituta.

Prezioak, kostuak eta soldatak

2011ko azken laurdenean, prezioen adierazle guztiek aurreko hilekoetan erakutsi zuten beheranzko joera areagotu zuten eta, hori dela eta, bai BPGaren deflatoreak bai kontsumoko zein industriako prezioek urte arteko hazkunde txikiagoak jaso zituzten. Moteltzeko bilakaera horretan paper garrantzitsu bat jokatu du energiako ekoizkinen salneurriak, epealdi horretan gorakadak nabarmen leundu zituelako, nahiz eta oraindik garestitze garrantzitsu bat erakusten duen.


Soldata kostuei dagokienez, deigarria egiten da negozioazio kolektiboan adostutako soldata igoera handia izatea, nahiz eta eragina ohi baino langile gutxiagorengan eduki, eta INEren inkestak jaso duen gehikuntza, berriz, oso apala izatea, hala langile bakoitzeko nola lan egindako ordu bakoitzeko neurtuta.

Prezioak

Adierazi berri denez, BPGaren deflatoreak behera egin zuen aurreko hiruhilekoaren aldean eta %1,3ra mugatu zuen urte arteko gehikuntza, hirugarren hiruhilabetekoa baino sei hamarren txikiagoa baita. Hala ere, 2011ko eta 2010eko datuak berdinak dira, bi urteetan, batez beste %1,6 hazi zelako. Eskariaren osagai nagusien deflatoreen artean, kontsumo pribatuaren deflatorearen hazkunde txikiagoa (%3,2tik %2,5era) azpimarratu behar da, kapital eraketa gordinarena aldaketarik gabe geratu zen bitartean eta kontsumo publikoarena oraindik tasa positiboetara iritsi ez den bitartean (%0,0).

Kontsumoko prezioek ere igoera erritmoa leundu zuten urte amaieran, neurri handi batean energiako prezioen moteltzeari esker. Hala ere, 2011ko batez bestea (%3,1) aurreko urtekoa (%1,7) baino nabarmen handiagoa izan zen, urte hasieran gertatu zen gorakada biziaren ondorioz. Hain zuzen ere, apirilean inflazioak bere baliorik gorena aurkeztu zuen, %3,7, baina abendurako urte arteko tasa %2,4ra jaitsia zen eta, are gehiago, 2012ko otsailean %2ko mugaren azpitik igaro zuen, hilabete horretan %1,9ko gehikuntza tasa jasota. Inflazioaren zuzenketa hori oso lotuta dago petrolioak nazioarteko merkatuetan izan duen salneurriari, apirilean 123 dolarretan ordaintzen bazen, abenduan 108 dolarrera merkatu zelako. Hala ere, 2012ko lehen hilekoetan petrolioak goranzko tentsioak nozitu ditu berriro eta martxoko egun jakin batzuetan 125 dolarreko langa gaintitu du, Europako diruak balioa galdu duen testuinguru batean.

Kontsumoko prezioen apaltzea biziagoa izaten ari da EAEko ekonomian Euroguneko eremuan baino. Hori dela eta, bi lurralde horien arteko aldea orain EAEren aldekoa da. Hain zuzen ere, urte amaieran diferentzial hori hiru hamarrenetakoa zen, baina 2012ko hasieran zortzi hamarrenetara zabaldu da, serie historiko osoan aurrekaririk ez duen balio batera. Ekoizkin talde guztiek parte hartu dute diferentzia hori areagotzeko orduan, salbuespen bakarrak garraioa eta irakaskuntza direlarik, lehenengoa erregaiak, gasa eta argindarra biltzen dituen taldea gehiago garestitu zelako eta bigarrena gehienetan Eurogunekoak baino gehikuntza handiagoak jasotzen dituelako. Gainontzeko taldeek Europakoak baino igoera txikiagoak izan zituzten urte hasieran eta bereziki deigarria da medikuntzaren diferentziala (ia bost puntuko aldea dago), Espainian generikoei ematen ari zaien bultzadaren ondorioz.

KPIren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak


Iturria: Eurostat eta INE.

Koiunturako gertakariak gutxiago baldintzatzen dute azpiko inflazioa, gorabehera handienak dituzten elementuen prezioen bilakaera kontuan hartzen ez duelako. Adierazle hori indize orokorraren azpitik kokatu zen urte amaieran (%2,4 eta %1,5 hazi ziren, hurrenez hurren). Hala ere, KPI orokorraren antzeko bilakaera izan zuen, urte hasieran goranzko joera eta 2011ko amaieran, berriz, urte osoko tasa apalenak jaso zituelako. Aldagai horretan ere begi bistakoa da Eurogunearekiko aldea (zazpi hamarren).

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2010	2011	2011			Ekarpena
			III	IV	Otsaila	
Inflazioa guztira (%100)	1,7	3,1	2,9	2,7	1,9	1,9
Azpiko inflazioa (%82,6)	0,7	1,8	1,7	1,7	1,2	1,0
- Landutako elikagaiak (%13,6)	0,7	3,8	3,7	4,2	3,1	0,4
- Industriako ondasunak (%27,7)	-0,2	0,7	0,3	0,3	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%41,3)	1,4	2,0	1,9	1,8	1,5	0,6
Hondarreko inflazioa (%17,4)	6,6	9,5	9,5	7,7	5,3	0,9
- Landugabeko elikagaiak (%6,9)	0,2	1,5	1,4	0,8	2,1	0,1
- Energia (%10,5)	11,5	15,3	15,4	12,6	7,5	0,8

Iturria: INE.

Inflazioa osatzen duten atalen azterketak erakusten du guztiek beheranzko joera hartua zutela laugarren hiruhilekoan, salbuespen bakarra landutako elikagaiak zirelarik, tabakoaren prezio altuak kaltetu zuelako. Hala ere, talde horren gehikuntza tasa moteldu egin zen 2012ko lehen hilekoetan, 2010eko abenduan tabakoaren gaineko zerga bereziari ezarri zitzaion igoeraren oinarri efektua ordurako desagertu zelako. Gainontzeko osagaiek zertxobait apaldu zuten igoera tasa. Izan ere, energiakoak ez diren industriako ondasunen prezioak oso maila apaletan geratu ziren, barruko ekoizpenaren salneurriak igo ziren arren eta inportazioak altuak baziren ere. Turismoaren bilakaera onak ez zien kalterik egin zerbitzuetako prezioei. Azkenik, energiaren prezioek aldakuntza tasa txikiagoa markatu zuten, salneurrien arteko alderaketa efektuarengatik.

Aurrekoagatik guztiaarengatik, aipatu den moteltze horretan erabakigarriak izan diren ekoizkin eta zerbitzuak erregaien eta lubrifikatzaileen salneurriekin lotura zuzena daukatenak izan ziren, hots, etxebizitza eta garraioa. Azken honen kasuan, 2011. urtean automobilen prezioek izan zuten prezio igoera mugatuagoak lagundu zuen tasa jaisten. Halaber, medikuntzako taldeak ere eragina izan zuen KPI orokorraren beheranzko joeran, botiken eta farmaziako beste produktu batzuen merkatzea nabarmena izan zelako. Hori dela eta, urte amaieran talde horrek serie historiko osoaren tasa apalenak jaso zituen.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2010	2011	2011				2012
			I	II	III	IV	Otsaila
Indize orokorra	1,7	3,1	3,4	3,4	2,9	2,7	1,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	-0,7	2,2	1,4	2,4	2,4	2,4	2,8
Edari alkoholikoa eta tabakoa	10,7	9,8	14,6	10,6	6,2	7,8	1,9
Jantziak eta oinetakoak	-0,2	0,3	0,3	0,5	0,1	0,4	-0,3
Etxebizitza	3,1	7,8	7,8	8,4	8,1	7,0	4,3
Etxeko hornidura	0,9	1,5	1,9	1,7	1,0	1,3	0,4
Medikuntza	-0,1	-0,6	-0,2	0,0	-0,5	-1,6	-2,5
Garraioa	6,5	7,7	9,2	8,1	7,4	6,2	5,1
Komunikazioak	-0,7	-0,8	-0,7	0,3	-1,2	-1,5	-3,5
Aisia eta kultura	-0,9	0,3	0,0	0,4	0,2	0,4	0,4
Irakaskuntza	2,2	1,3	1,7	1,1	1,0	1,3	1,6
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	1,7	1,7	2,1	2,0	1,7	1,2	0,8
Besteak	2,1	2,7	3,1	2,9	2,5	2,4	2,2

Iturria: INE.

Industriako prezioen indizeak, kontsumoko prezioen indizeak bezala, aurreko urtekoa baino urteko batez beste nabarmen altuagoa erakutsi zuen talde nagusi guztietan, baina urte amaierarako balio horiek apalagoak ziren. Beheranzko joera horren oinarrian, 2012. urteko hasieran areagotu baita, bitarteko ondasunen, kontsumoko ondasunen eta energiako ekoizkinen salneurrien bilakaera motelagoa dago, nahiz eta oraindik talde horien urte arteko igoerak altuak diren. Ekipamendurako ondasunek, berriz, %2aren inguruko urte arteko tasak jaso zituen urte osoan zehar eta moteltzeko joera garbia erakutsi zuten aurtengo lehen hilekoetan.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011				2012
			I	II	III	IV	Urtarrila
Indize orokorra	3,3	7,6	9,1	7,8	7,3	6,1	3,6
Kontsumoko ondasunak	0,2	2,4	2,7	2,6	2,2	1,9	1,3
- Kontsumo iraunkorrak	-0,5	0,5	0,5	0,4	0,5	0,8	0,6
- Kontsumo iragankorrak	0,5	3,1	3,6	3,5	3,0	2,3	1,6
Ekipamendurako ondasunak	0,1	2,1	2,0	1,9	2,2	2,2	1,6
Bitarteko ondasunak	3,1	6,2	8,9	7,2	5,5	3,2	1,0
Energia	11,7	21,9	23,8	20,4	21,9	21,7	13,9

Iturria: Eustat.

Lan kostuak eta soldatak

Enpresek langile bakoitzeko ordaindu zuten batez besteko lan kostua, ordainketak eta Gizarte Segurantzari emandako kotizazioak barne daudela, %0,7 gehitu zen 2011ko laugarren hiruilekoan. Beraz, aurreko hiruilekoaren gehikuntza handia (%2,5) nabarmen leundu zen eta urte osoko kostuaren gehikuntza tasa 2010ekoa baino txikiagoa izan zen (%0,6 eta %1,4, hurrenez hurren). Batez besteko gehikuntza horren erantzule nagusiak eraikuntza eta industria izan ziren, zeren eta bi jarduera horietan kostuen gutzitzea %1,7 igo baitzen, iraitzeagatiko kalte ordainengatik, bestelako kostuen atala goraraziz. Zerbitzuek, berriz, askoz gutxiago igo zuten kostuen gutzitzea, beste arrazoi batzuen artean, iraitzeagatiko kalte ordainak gutxitu zirelako.

LAN KOSTUEN BILAKAERA LANGILE BAKOITZEKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011			
			I	II	III	IV
Kostu guztiak	1,4	0,6	-0,5	-0,4	2,5	0,7
- Soldata kostuak	2,0	0,2	0,1	-1,2	0,7	0,9
- Bestelako kostuak	-0,4	1,9	-2,4	1,9	8,0	0,2
Kostu osoa industrian	2,3	1,6	-0,8	3,2	2,5	1,7
Kostu osoa eraikuntzan	-0,3	2,3	3,6	1,8	2,2	1,7
Kostu osoa zerbitzuetan	1,4	0,3	-0,8	-1,8	3,1	0,6

Iturria: INE.

Lan egindako ordu bakoitzeko kostuek, berriz, lan kostuen guztizkoak jaso zuen beheranzko joera bera egiaztatu zuten. Hala eta guztiz ere, balio horiek altuak izan ziren oraindik gainontzeko autonomia erkidegoetako datuekin alderatzen direnean. Hain zuzen ere, Estatuko batez bestea baino gutxiago hazi ziren arren, lan egindako ordu bakoitzeko kostua (24,75 euro) Espainia osoko altuena da.

LAN KOSTUEN BILAKAERA LAN ORDU BAKOITZEKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2011			
			I	II	III	IV
Kostu guztiak	0,6	0,7	-2,9	-1,4	4,4	1,8
- Soldata kostuak	1,2	0,2	-2,3	-2,2	2,6	2,0
- Bestelako kostuak	-1,1	2,1	-4,8	0,9	9,9	1,2
Kostu osoa industrian	0,3	-0,5	-6,3	-1,8	3,8	0,7
Kostu osoa eraikuntzan	0,7	1,7	0,1	-1,4	4,3	3,6
Kostu osoa zerbitzuetan	0,6	1,2	-1,9	-1,2	5,2	2,2

Iturria: INE.

Hitzarmen kolektiboetan negoziatutako soldata igoerak ez datoz bat soldata kostuek erakutsi zuten apaltzearekin, zeren eta 2011ko urtarrilaren eta abenduaren artean lehenengoak %3,6 gehitu baitziren, negoziazio kolektibo mugatuko ingurune batean, gaur egun bizi den krisi

ekonomiko sakonarengatik. Igoera nabarmen hori azaltzeko orduan gogoratu behar da soldaten igoerak adosteko unean hartzen den erreferentzia nagusia oraindik aurreko urteko inflazioa dela, eta %2,8 izan zela. Tasa hori urte batzuetarako hitzarmenetan salbagoardiako klausulen bitartez sartu da. Urtean zehar sinatutako hitzarmenek ere igoera garrantzitsuak (%3,4) izan dituzte. Azkenik, sektoreko lan hitzarmenek enpresakoek baino gehikuntza tasa altuagoak adostu zituzten.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	2007	2008	2009	2010	2011
Indarrean dauden hitzarmenak:	4,2	5,0	2,7	1,9	3,6
- Urtean zehar sinatutakoak	4,1	4,8	2,8	1,7	3,4
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	4,2	5,2	2,8	1,7	3,8
- Enpresako hitzarmenak	4,2	4,1	2,6	2,4	3,1

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Zerga bidezko diru sarrera guztiek %1,9ko jaitsiera izan zuten 2011. urtean aurreko urtearekin alderatuta. Tasa hori gehiago nabarmentzen da 2010ean lortu zen %8,4arekin erkatzen denean, urte horretako bultzada zergen araudian onartutako neurri berriei lotuta dagoela. Beste aldetik, 2011ko diru sarreraren hazkunde erritmoa apalduz joan zen hilekoz hileko, bigarren sei hilabetea ekonomiaren aldagai gehienek izan zuten okertzearen ondorioz. Hala ere, Rover kasutik ondorioztatzen diren eragiketak ez badira kontuan hartzen eta diru kopuruak termino homogeenagoetan aztertzen badira, sarreraren aldakuntza hobe da.

Zerga nagusien analisiak erakusten du PFEZk gehikuntza tasa positiboak (%6,3) lortu zituela berriro, lanaren etekinen gaineko atxikipenen eta, bereziki, kuota diferentzial garbiaren bilakaerari esker. Lehenengo osagaiari dagokionez, soldatapekoen kopurua gutxitu izana, langabezia prestazioen estaldura maila jaitsi izana eta langile publikoen ordainsarrietan eginiko mozketak konpentsatuta geratu ziren atxiki beharreko soldata masaren gehikuntza handiagoak konpentsatu zuen. Ogasunean sartu beharreko kuota, berriz, %17,7 igo zen, likidazio oinarriaren karga tasak eta etxebizitza erosteagatik zegoen kenkariaren jaitsierak bultzatuta.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2011ko urtariletik abendura)

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2010	2011	Aurrekon. %	11/10 aldak. %
PFEZ	4.065.868	4.321.226	101,6	6,3
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	4.308.649	4.448.414	99,7	3,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	224.646	217.844	93,1	-3,0
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	82.630	85.191	97,3	3,1
- Ondare irabazien atxikipenak	18.250	14.780	78,2	-19,0
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	160.245	154.521	90,3	-3,6
- Kuota diferentzial garbia	-728.551	-599.524	83,3	17,7
Sozietateen gaineko zerga	987.056	1.160.259	111,1	17,5
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	224.646	217.844	93,1	-3,0
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	82.630	85.191	97,3	3,1
- Ondare irabazien atxikipenak	18.250	14.780	78,2	-19,0
- Kuota diferentzial garbia	661.531	842.443	119,6	27,3
Zergadun ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	131.328	82.099	69,7	-37,5
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	70.541	77.145	94,9	9,4
Ondarearen gaineko zerga	3.641	3.432	121,8	-5,8
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	5.258.435	5.644.160	102,6	7,3
BEZaren bertoko kudeaketa	3.478.206	3.099.727	79,1	-10,9
Ondare eskualdaketen gaineko zerga	194.788	98.531	59,7	-49,4
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	80.945	58.475	62,9	-27,8
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	34.339	24.753	60,5	-27,9
Fabrikazio zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.506.234	1.381.047	83,7	-8,3
Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gainekoa	49.266	48.350	89,4	-1,9
Aseguru sarien gaineko zerga	76.048	77.383	95,3	1,8
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	5.419.826	4.788.276	79,7	-11,7
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	110.058	110.172	100,8	0,1
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	10.788.319	10.542.608	90,8	-2,3
BEZaren doikuntza	1.036.993	997.640	96,5	-3,8
Zerga berezien doikuntza	-125.305	-59.335	40,3	52,6
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	11.700.007	11.480.913	91,8	-1,9

Iturria: Foru Aldundiak.

Zuzeneko zergen beste atal nagusiak, hots, sozietateen gaineko zergak, aurreko urtean ez bezala, oso gehikuntza garrantzitsu bat (%17,5) jaso zuen eta gainontzeko zergen emaitzak gainditu zituen. Hala ere, zerga horren bidez bildutako diru kopurua oraindik 2009koa baino txikiagoa izan zen. Ekonomia jardueraren hazkundeak eta enpresek kostuetan egin dituzten doikuntzek emaitzen kontua hobetzea ahalbidetu dute.

Aitzitik, zeharkako zergen bilakaerak oso emaitza negatiboak (%-11,7) erakutsi zituen, bereziki BEZaren jaitsierarengatik (%-10,9). Azken gastuak 2010ean izan zuen hobetzeko joera bertan behera geratu izanak eta lehenago aipatu den Rover kasuak kaltetu zuten zerga horren diru bilketa. Horiek horrela, osagai guztiek beheranzko joera erakutsi zuten, nahiz eta kontsumo publikoak eta bizitegi berrien erosketak izan ziren balio negatiboak jaso zituztenak, kontsumo pribatua oraindik tasa positibotara zegoelarik.

Azkenik, BEZarekin gertatu zen bezala, zerga bereziek zergapetzen dituzten kontsumo nagusiak jaitsi ziren 2011. urtean. Izan ere, guztiek, salbuespenik gabe, diru bilketa murriztu zuten 2010. urtearen aldean, baina nabarmendu behar dira diru gehien biltzen dutenen beherakadak. Alde batetik, hidrokarburoek %6,4 gutxiago bildu zuten, erregaiei kontsumoa jaitsi zelako, petrolioaren salneurria garestitu bazen ere. Beste aldetik, tabakoaren zergak bildutako dirua %14,8 gutxitu zen, toki publikoetan ez erretzeko erabakiaren ondorioak oraindik nabaritzen.


Finantza arloa

2011ko laugarren hiruhilekoan eta 2012ko lehen hilekoetan, Euroguneko zor subiranoko merkatuetan bizi ziren tentsioek gainontzeko merkatuetako giroa baldintzatu eta ezaugarritu zuten berriro. Izan ere, burtsek gorakada eta beherakada garrantzitsuak izan zituzten eta euroaren truke tasak balio galera nabarmena pairatu zuen.

2011ko azken hilekoetan, periferiako herrialdeek beren hartzekodunekin zituzten konpromisoei aurre egiteko ahalmenaz merkatuek agertu zituzten zalantzek, EBZk bankuen eskuetan jarri zuen likidezia handiak eta Europako herrialde batzuek rating-ean nozitu zituzten jaitsierek arrisku sariak berriro gorarazi zituzten. Izan ere, azaroan Greziaren (3178 oinarri puntu), Italiaren (553 puntu) eta Espainiaren (471 puntu) diferentzialak maximoetara eramane zituzten. Gorakada hori periferiako herrialdeak ez direnetara ere zabaltzen zen eta Frantzia kaltetu zuen, beraren diferentziala bizkor areagotu baitzen, 70 oinarri puntutik 190etara. Aurrekoaren ondorioz, Alemaniaren nagusigoa sendotu zen, bertako zor publikoa Europako

kalitate handienekoa baita, eta, lehenengo aldiz historian, egun batzuetan interes tasa negatiboak eskaini zituen. Otsailaren erdialdera arte ezin izan zen goranzko joera hori irauli. Europako taldeak Greziaren bigarren erreskatea onartu izanak nabarmen gutxitu zituen arrisku sarien gaineko tentsioak. Ez bakarrik Greziakoa, 4.212 puntuetatik 1.648etara jaitsi baitzen astebete bateko epe laburrean, gainontzeko herrialdeetakoa ere bai. Hala ere, diferentzialak oso handiak dira oraindik.

Bund alemaniarrekiko gainkostua Ehunekoak



Iturria: Espainiako Bankua.

Herrialde garatu nagusietako banku zentralek ezarri zuten moneta politikak tonu hedakorriari eutsi zion. Ekonomiaren jarduera eta enpleguaren sorrera bultzatzeko asmoz, EBZk (%1), Erreserba Federalak (%0aren eta %0,25aren artean), Ingalaterrako Bankuak (%0,5) eta Japoniako Bankuak (%0aren eta %0,1aren artean) aldaketarik gabe eta balio minimoetan utzi zituzten erreferentziako tasak. Halaber, ezohiko neurriei eutsi zieten. Hain zuzen ere, EBZk mugagabeko likideziako beste enkante bat egin zuen eta 530.000 milioi euro sartu zituen Euroguneko finantza sisteman, kreditua areagotzeko. Ingalaterrako Bankuak, berriz, 50.000 milioi liberatan gehitu zuen aktiboak erosteko egitasmoa, 325.000 milioi liberako kopurura igoaraziz. Azkenik, Japoniako Bankuak, gutxi gorabehera, 100.000 milioi eurotan areagotu zuen moneta sustapeneko egitasmoa.


Ekonomia jardueraren bizitasuna moteldu izanak eta inflazio tasen jaitsierak garapen bidean dauden herrialdeetako banku zentral gehienei aukera eman zieten moneta politikak leuntzeko, horren murriztailea ez den tonu bat hartuz. Zehazki, Txinak puntu erdi bat jaitsi zuen kutxa koefizientea bertako ekonomia sustatzeko. Indiak, berriz, interes tasen igoerak gelditu zituen, eta Brasilek, bigarren aldiz aurren, erreferentzia tasa gutxitu zuen, %9,75ean utzi arte.

Ziurgabetasun handiak dibisen merkatuetako gorabeherak areagotu zituen. Euroguneko zor subiranoaren arazoari emandako erantzuna aski ez izateak eta AEBetako ekonomiaren bilakaera onak estatubatuar diruaren alde jokatu zuten honen eta Europako txanponaren arteko balio trukean, lehenengoa aktibo babestuagotzat hartzen zelako. Izan ere, euroaren balioa 1,26 dolarren azpira jaitsi zen urtarrilean, 2011ko maiatzean lortu zuen 1,482 dolarretatik urrun. Euroaren balio galera hori beste dibisa batzuetara ere hedatu zen. Yenaren kasuan, euro baten truke tasa 99,65 yenetara iritsi zen, dibisa horrek hamabi urtean izan duen baliorik gorena baita. Suitzako frankoaren aldean, berriz, %6ko balioa galdu zuen.


Urte amaieran, ekonomiaren arazoei eta arriskua saihesteko nahia areagotu izanak errenta aldakorreko merkatuak baldintzatu zituzten eta gorabehera handiak eraman zituzten burtsa merkatura, galera handiak izan baitzituen. Hain zuzen ere, munduko burtsek galera garrantzitsuak izan zituzten 2011. urtean, salbuespena AEBetakoak izan zirelarik, ez irabazirik ez galerarik ez baitzuen izan. Esate baterako, EuroStoxx50 indizea %-17,2 jaitsi zen, Nikkei indizea %-17,3 eta Ibex-35 %-13,1. Hala eta guztiz ere, 2012ko lehen hilekoetan, joera hori irauli zen. Burtsek sendo egin zuten gora, Asiatik eta AEBetatik iritsi ziren datu makroekonomiko onak eta banku zentralek emandako likideziak bultzatuta. Hori dela eta, otsailaren amaieran %6,5aren eta %14,1aren arteko irabaziak lortuak zituzten. Salbuespen bakarra Espainiako burtsa izan zen, eta kotizazio saio batzuetan emaitza positiboak lortu bazituen ere, otsailaren amaieran %0,4ko galera zuen.

Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Libera esterlina



Suitzako frankoa



Yena



Iturria: Espainiako Bankua.


Moneta politikaren lasaitzea banku arteko merkatura igaro zen eta horrek bide eman zuen interes tasa ofizialak jaisteko. Hain zuzen ere, 2011ko urritik 2012ko otsailera bitartean, 3 eta 12 hilabeterako euriborrek beheranzko joera leuna erakutsi zuten eta, hurrenez hurren, %1,03an eta %1,68an geratu ziren banku arteko interes tasak, 2011ko urtarriletik lortu ez ziren mailak baitira.

Espainiako Bankuak bankuen maileguez egiten duen inkestaren arabera, ekonomiaren bilakaeraz dauden igurikimenak berriki okerrera egin izanak nabarmen gutxitu zituen enpresek


inbertsio berriak egiteko behar zuen finantzazioa eta baita familiek etxebizitzak erosteko eginiko eskaerak ere. Horri gehitzen bazaio finantzaziorako kostuak igo zirela (hipotekako eragiketa berrien interes tasa hirugarren hiruhilekoko %3,64tik 2012ko urtarrileko %3,80ra igo zen eta kontsumoarena %8,71tik %10,07ra epealdi berean) kreditu pribatuen eskaria nabarmen gutxitu zela eratoritzen da. Orobat, Espainiako banku sistemak egin duen berregituraketak finantzaziorako baliabideak murriztu zituen eta, aitzitik, finantzazio horren kostua igoarazi. Beraz, eskaintza ere jaitsi zen. Aurrekoaren ondorioz, arlo pribatuari emandako kredituen kopurua %1,5 murriztu zen.

Interes tasen bilakaera %

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra



Iturria: Espainiako Bankua.


Beherakada horren ondorioz, arlo pribatuak 1.674 milioi eurotan gutxitu zuen bere zorra 2011ko hirugarren hiruhilekoaren aldean eta krisi ekonomikoa hasi zenetik erakusten zuen zorpegabetzeko ibilbidea berreskuratu du. Kredituak gutxitu ziren arren, EAEko kutxen berankortasun tasak gora egin zuen berriro eta %3,99an kokatu zen. Langabezia tasaren gehikuntza igoera horren atzean egon daiteke, BJA inkestaren arabera %11,2ra igoa baitzen. Hala ere, berankortasuna txikia da oraindik, bereziki Espainian urtarrilean jaso zen %7,91ko tasarekin alderatzen bada. Estaldura tasa, hots, ordaintzen ez dena estaltzeko eskura dagoen funtsa, zertxobait igo zen eta, oraingoz, sistemaren kaudimenerako ez dago arriskurik.

Azkenik, gordailu pribatuek urte hasieran hasi zuten moteltzeko joera areagotu zuten 2011ko laugarren hiruhilekoan eta %2,2 jaitsi ziren. Espainiako ekonomiaren apaltzea, gordailuek


eskaintzen duten errentagarritasuna mugatzen duen dekretu lege berria eta Estatuko zorraren interes tasa igo izana, inbertsio txiki asko erakarri baitzuen, dira jaitsiera horren atzean dauden faktore nagusiak. Bereziki esanguratsuak dira aurrezkiko (%-15,2) eta ageriko (%-4,5) gordailuen beherakadak.

Kreditu eta gordailuen bilakaera EAEn Urte arteko aldakuntza tasak

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainiako Bankua.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Ingurunerako aurreikuspenak

Gaur egun, azaleratzen ari diren eta garapen bidean dauden ekonomiek herrialde aurreratuenen aurkako bilakaera erakusten dute. Hain zuzen ere, lehenengoez hazkunde bizia, inflazio kontrolatua eta egoera oneko kontu ekonomikoak dituzte. Bigarrenek, ordea, gehikuntza tasa ahulak, langabezia tasa altuak eta defizit publiko handiak dituzte. Koiuntura honetan, kezka berriak agertu dira, hala nola petrolioaren salneurriak etorkizunean izango duen bilakaera eta tentsio geopolitikoaren eragina merkatu globaletan. Baina epe laburrean, kezka nagusia Europan dagoen zorraren krisia da, munduko ekonomiaren hazkundera mehatxatzen duena. Eurogunean ezarri diren politiken etengabeko porrotak atzeraldia sor dezake munduan eta depresioa eremu horretako Europako herrialdeetan.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2011	2012	2013	2011	2012	2013
Munduko ekonomia	2,9	2,6	3,2	3,7	3,0	2,9
AEB	1,7	2,3	2,6	3,1	2,3	2,0
Kanada	2,5	2,1	2,3	2,9	2,0	1,9
Japonia	-0,7	1,9	1,5	-0,3	-0,2	0,0
Eurogunea	1,5	-0,4	0,9	2,7	2,2	1,7
Europar Batasuna	1,6	-0,1	1,1	2,9	2,2	1,9
Alemania	3,0	0,6	1,5	2,3	1,9	1,8
Espainia	0,7	-1,4	0,1	3,2	1,8	1,7
Frantzia	1,7	0,2	0,9	2,1	2,0	1,8
Herbehereak	1,3	-0,7	1,2	2,3	2,0	1,9
Italia	0,5	-1,6	0,1	2,8	2,7	2,3
Erresuma Batua	0,8	0,6	1,8	4,5	2,7	2,1
Asia eta Ozeano Barea	4,4	4,9	5,1	3,5	2,5	2,7
Ekialdeko Europa	4,7	2,5	3,6	6,3	6,4	5,3
Amerika Latinoa	4,2	3,6	4,0	6,9	6,3	6,3


Iturria: Consensus Forecast (2012ko martxoa).

AEBetarako, aurreikuspen berrienek %2,0aren inguruko hazkundera iragartzen dute barne produktu gordinerako, hots, 2011koa baino zertxobait handiagoa. 2013. urterako, berriz, %2,5era arteko bizkortzea aurreratzen du aurreikuspena. Edozein modutan, Eurogunerako espero den atzeraldiak kalte egingo dio estatubatuar ekonomiari. Beste aldetik, hauteskundeek eragina izango dute 2012ko jardueran. Erreserba Federalak moneta pizgarriei eutsiko die, baina ziurgabetasuna dago azaroko hauteskundeak arte herrialde horretan egongo den norabide fiskalaz


BPGren bilakaera eremuka

Urte arteko aldakuntza tasak


Eurogunea




AEB



Japonia



Txina




Iturria: NDF. 2012ko urtarrileko aurreikuspenak.

Txina eta India izango dira munduko panorama ekonomikoan hazkunde tasa handienak lortuko dituzten herrialdeak. Orobat, azaleratzen ari diren eta garapen bidean dauden ekonomiek gehikuntza biziak lortuko dituzte. Ekonomia horiek munduko ekonomiaren hazkundera sustatu dute nagusiki azken bost urtean. 2012. urtean, herrialde horiek hazkunde tasa apala jasoko dute, aurreko urteetako baino zertxobait txikiagoa, eta beraien helburua barne eskaria bultzatzea izango da, kanpo eskariaren jaitsiera, batez ere Europatik datorrena, konpentsatzeko. Halaber, Asiako kreditu baldintzak estutu ziren Europako finantza egoerak izan zuen narriaduraren ondorioz. Hala eta guztiz ere, Consensus Forecast erakundeak %4,9ko gehikuntza aurreikusten du 2012rako eta %5,1, berriz, 2013rako, Ozeano Bareko herrialde asiarrentzat.

Txinari dagokionez, moteltzeko joera espero da 2012an eta 2013an. Apaltze hori ekarriko duten faktore nagusiak, alde batetik, ekonomiaren gehiegizko berotzea saihesteko eta higiezin burbuila ekiditeko herrialdean ezarri ziren politikak eta, beste aldetik, kanpoko gertakariak dira. Moneta politika diseinatzeko ardura dutenek hiru helburu nagusien arteko oreka aurkitu beharko dute: ekonomiaren hazkundera, inflazioaren kontrola eta gizartearen egonkortasunari eustea. Orobat, inbertsioan eta esportazioetan oinarrituta dagoen gaur eguneko eredutik aldentzea ahalbidetuko duen doikuntza egin beharko du, barne kontsumoan oinarritzen den hazkunderantz joateko.

Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Japoniarako dauden hazkunde aurreikuspenak onak dira 2012. urterako eta, bereziki, berreraikitzearen jarraipenean oinarritzen dira, gobernuaren gastua eta inbertsioa igotzeko pizgarria baita. Beraz, Consensus Forecastek %1,8ra igo du Japoniako gehikuntza tasa 2012. urterako eta %1,4an kokatu du 2013koa. Mugak daude hori baino gehiago hazteko. Eskaintzaren aldetik, argindarraren falta eta lantegietan oraindik dauden kalteek eragina izango dute ekoizpenean eta horniketa kateetan. Eskariari dagokionez, mugak kanpo arlotik iritsiko dira, Txinako kanpo eskaria gutxiago haziko delako eta Europako ekonomia atzeraldian murgilduta egongo delako. Japoniako barne eskariak ezin izango du konpentsatu kanpo eskariaren ekarpen txikiagoa, soldata errealak jaitsi direlako eta ekonomia horretan oraindik deflazioa dagoelako.

Txinarekin batera Indiak gidatuko du munduko hazkundera 2012. urtean. Epe laburrean, Indiak oztopo batzuei aurre egin beharko die hazkunde sendo bat lortzeko, hala nola inflazio altuari eta arazo fiskalei. Herrialde horretarako beste erronka bat aurrekontuaren defizitarena da, errupiarren balio galerarekin batera. Hala ere, NDFk %7,0aren inguruko hazkundera aurreikusi du 2012-2013 epealdi osorako.

Modu esanguratsuan nabarmentzen ari den ekonomia bat Brasil da. Herrialde horretako moneta politika hedakorra eta kapitalean eginiko inbertsioa dira ekonomia horren etorkizuneko hazkunderaren oinarriak. Horiek horrela, NDFk estimatu du hazkundera %3,0an eta %4,0an kokatuko dela, hurrenez hurren, 2012an eta 2013an.

Badirudi Eurogunea atzeraldi arin batean sartuko dela 2012. urtean, herrialde batzuetako zor subiranoaren krisiarengatik eta hersturako neurriek BPGren hazkundera izango duten eraginengatik. 2012. urtean zehar, hazkunde tasa %0,3aren eta %0,5aren artean egongo dela aurreikusten da. Hala ere, Europako ekonomiak 2013an urratsez urrats suspertuko direla estimatu da, baina hazkunde tasak ahulak izango dira eta aldakuntza tasa hutsalak erakutsiko dituzte. Hain zuzen ere, 2013rako estimazioak %0,8aren inguruan daude. Zorraren krisiak merkatuetan eragin duen konfiantza narriadura bizia oztopo garrantzitsua da ekonomia bultzatuko duen ingurune bat sortzeko.

Espainiari dagokionez, konpromisoa hartu du defizit helburu batzuk lortzeko eta ahalegin handia egin beharko du eremu fiskalean horiek lortzeko. Horrek kalte egingo dio ekonomiaren hazkunderari 2012an eta 2013an. 2012an BPGa %1,5aren inguruan jaitsiko dela espero da, gero susperraldi arin bati ekiteko eta 2013an %0,0tik hurbil egongo den tasa batean kokatzeko. Analisisgileen artean, iritzia oso ezberdinak dira. Izan ere, Ceperdek Espainiako ekonomiarentzat %0,8ko hazkundera iragarri du 2012. urtean, hurrengo urtean lau hamarren bakarrik hobetzeko eta %0,4an kokatzeko. Funcaseko panelean, berriz, %1,3 eta %0,2 dira

urte arteko tasan estimatu diren hazkundeak 2012rako eta 2013rako, hurrenez hurren. NDF ezkorragoa da eta hazkundea %-1,7ra eramandu 2012an eta %-0,3ra hurrengo urtean.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2012ko otsaila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inbert. ekipan eta bestean	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
AFI	-1,3	0,2	-1,6	-0,1	-6,7	-4,9	-6,4	-0,8	-7,9	-1,9	-3,4	1,6
BBVA	-1,3	0,6	-2,0	-0,9	-3,1	-1,8	-6,3	-1,9	-7,3	-4,0	-5,2	1,9
Bankia	-1,6	0,0	-2,5	-0,5	-5,3	-2,3	-7,2	-1,2	-8,8	-2,1	-4,2	0,3
Catalunyacaixa	-1,0	---	-1,0	---	-5,3	---	-7,1	---	-9,2	---	-5,2	---
Cemex	-2,1	0,0	-1,9	-0,5	-4,6	-3,0	-12,0	-3,9	-14,0	-6,0	-10,0	-2,0
CEEM-URJC	-1,0	---	-1,0	---	-5,9	---	-6,0	---	-7,2	---	-3,9	---
CEPREDE-UAM	0,0	---	0,1	---	-3,5	---	-2,4	---	-3,7	---	-0,1	---
CEOE	-1,6	0,7	-1,2	-0,4	-7,0	-4,2	-7,6	-2,1	-9,2	-3,4	-4,8	0,5
FUNCAS	-1,7	0,2	-1,9	-0,4	-4,1	-2,4	-7,5	-2,3	-8,6	-3,4	-5,8	-0,6
ICAE-UCM	-0,3	---	-0,2	---	-4,5	---	-4,8	---	-8,0	---	-1,0	---
IEE	-1,5	---	-1,5	---	-4,0	---	-6,6	---	-8,5	---	-4,5	---
IFL-UC3M	-0,8	0,1	-1,5	-0,8	-6,2	-3,1	-7,6	-3,6	-10,4	-5,5	-2,5	-0,6
Intermoney	-2,1	---	-2,5	---	-4,6	---	-12,4	---	-13,9	---	-10,8	---
La Caixa	-1,0	0,6	-0,9	0,2	-5,5	-3,8	-7,2	-0,4	-8,3	-2,7	-4,7	4,8
Repsol	-1,6	-0,1	-1,9	0,4	-5,4	-3,1	-8,8	-3,4	-12,9	-7,8	-0,5	5,2
Santander	-1,3	0,2	-1,2	-0,5	-6,0	-4,5	-7,1	-2,5	-8,6	-4,2	-4,0	0,6
Solchaga Recio	-1,3	---	-1,1	---	-4,5	---	-8,5	---	-9,2	---	-1,5	---
Batez bestea	-1,3	0,2	-1,4	-0,4	-5,1	-3,3	-7,4	-2,2	-9,1	-4,1	-4,2	1,2
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2011-04)	2,3	2,4	1,4	1,6	-0,8	-0,6	2,7	3,7	0,7	1,7	---	---
Esp. Bankua (2012-01)	-1,5	0,2	-1,2	-0,5	-6,3	-3,3	-9,2	-2,2	-10,6	-3,1	-7,0	-0,9
E. Batzord. (2012-02)	-1,0	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
NDF (2012-01)	-1,7	-0,3	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
ELGE (2011-11)	0,3	1,3	-0,1	0,9	-2,0	-1,3	-4,0	0,7	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2012ko otsaila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BAI)	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
AFI	-3,7	-1,2	3,6	6,0	-4,1	1,8	1,7	2,0	-3,4	-0,7	24,3	24,6
BBVA	-3,2	-1,3	1,6	8,2	-4,8	2,1	1,2	1,1	-3,8	-1,9	24,4	24,6
Bankia	-4,1	-1,0	1,5	3,2	-6,6	0,0	1,6	1,9	-3,3	-1,5	24,4	25,5
Catalunyacaixa	-3,0	---	3,6	---	-2,8	---	1,7	---	-2,9	---	23,7	---
Cemex	-4,7	-1,7	1,8	5,7	-5,5	1,0	1,3	1,5	-3,0	-1,0	23,3	23,3
CEEM-URJC	-3,1	---	4,8	---	-2,3	---	1,6	---	-1,9	---	23,0	---
CEPREDE-UAM	-0,8	---	3,5	---	-0,2	---	2,1	---	-0,1	---	23,5	---
CEOE	-3,6	-1,4	3,4	6,9	-4,0	-0,2	1,7	1,3	-3,0	-0,5	23,8	23,9
FUNCAS	-3,7	-1,3	2,4	5,7	-4,2	0,8	1,6	1,5	-3,4	-0,8	24,2	24,5
ICAE-UCM	-2,1	---	3,3	---	-2,8	---	1,6	---	-0,6	---	21,7	---
IEE	-3,2	---	3,0	---	-3,0	---	1,5	---	-2,5	---	23,7	---
IFL-UC3M	---	---	5,3	6,1	-4,1	0,1	1,8	1,5	---	---	23,9	24,9
Intermoney	-5,1	---	-1,5	---	-11,0	---	0,9	---	-3,8	---	24,0	---
La Caixa	-3,2	-0,7	1,5	5,3	-5,9	1,2	1,4	1,7	-3,6	-1,1	24,1	24,3
Repsol	-4,2	-1,1	5,4	9,7	-2,9	7,3	1,6	1,6	-2,5	-2,0	23,5	24,0
Santander	-3,5	-1,7	4,3	6,8	-3,0	0,9	1,8	1,4	-2,0	-0,5	23,1	22,9
Solchaga Recio	-6,0	---	4,5	---	-3,8	---	2,0	---	-2,8	---	23,5	---
Batez bestea	-3,6	-1,3	3,1	6,4	-4,2	1,5	1,6	1,5	-2,7	-1,1	23,7	24,2
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2011-04)	1,3	1,7	7,9	7,2	4,1	4,7	1,9	1,9	1,4	1,5	18,5	17,3
Esp. Bankua (2012-01)	---	---	3,5	5,9	-4,8	1,2	1,5	1,2	-3,0	-0,7	23,4	23,3
E. Batzord. (2012-02)	---	---	---	---	---	---	1,3	---	---	---	---	---
NDF (2012-01)	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
ELGE (2011-11)	-1,3	0,4	3,6	5,6	-1,7	3,0	1,4	0,9	---	---	22,9	22,7

Iturria: Funcas.

Oro har, igurikimenek BPGaren beherakada garrantzitsua iragartzen dute 2012ko lehen erdian eta urteko bigarren erdian hasiko dira ikusten hobekuntza zantzuak, 2013. urtean zehar zerotik hurbil kokatuko direnak. Kontsumo pribatuak ahultasuneko zantzu biziak erakutsiko ditu,

langabezia tasa altuen ondorioz. Administrazio publikoetako gastua hondoratuko da defizit publikoa gutxitzeko egitasmoaren helburua bete ahal izateko. Inbertsioa ere txikiagoa izango da, ingurunea hoberantz noiz egingo duen eta finantzazioa lortzeko malgutasun handiagoa noiz gauzatu den esperoan. Barne eskariaren ahultasuneko testuinguru horretan, inportazioak ere gutxituko dira eta esportazioek konpentsatuko dute, baina neurri batean bakarrik, narriadura orokorra.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2012ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012.I	2012.II	2012.III	2012.IV	2012	2013
BPG	-0,2	-0,9	-1,2	-1,1	-0,8	-0,4
Kontsumo pribatua	-1,1	-1,8	-2,0	-1,0	-1,5	0,0
Kontsumo publikoa	-6,5	-7,5	-8,3	-10,0	-8,1	-8,1
Kap. finkoaren eraketa gordina	-9,4	-10,8	-12,1	-9,6	-10,5	-4,8
- Inbertsioa ekipamenduan	1,2	0,4	0,1	1,2	0,7	2,3
- Inbertsioa landutako aktiboetan	-6,0	-6,3	-7,9	1,0	-4,9	2,0
- Inbertsioa eraikuntzan	-10,7	-12,3	-12,5	-10,0	-11,4	-5,4
Barne eskaria	-4,2	-5,0	-5,5	-4,6	-4,8	-2,6
Esportazioak	3,6	2,8	2,4	2,5	2,8	4,8
Inportazioak	-9,2	-10,3	-10,9	-8,5	-9,7	-1,0

Iturria: CEPREDE.

Jarduera adarrei dagokienez, 2012. urtean industriak portaera hobe izango duela aurreikusten da eta eraikuntzak eta zerbitzuek nozituko dute sakontasun handiagoz jardueraren beherakada. Ekonomia jardueraren narriadurak lanpostu garbien galera ekarriko du berriro. Funcasek %2,7an kokatu du galera hori 2012rako eta %1,1ean, berriz, 2013rako. Beherakada horrek adierazten du 460.000 lanpostu galduko direla 2012an eta beste 180.000 hurrengo urtean. Langabezia tasari dagokionez, 2012an %23,7ra igoko dela eta 2013an, berriz, %24,2ra kalkulatu da.

EAErako aurreikuspenak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoan zehazten diren aurreikuspenak 2012rako eta 2013ko lehen seihilekorako

berrikusi ditu. Eguneraketa horretan, beherantz zuzendu dira 2012rako hazkunde aurreikuspenak. Aldakuntza tasa berriak %-1,3ko uzkurdua islatzen du EAEko ekonomiarentzat aurreten. Hiruhilekoka adierazita, atzeraldian sartuko da eta emaitza txarrean aurtengo bigarren hiruhilekokoan gertatuko dela aurreikusten da. 2012ko azken seihilekokoan susperraldi txiki bat hasiko da eta 2013ko bigarren hiruhilekokoan, aurreikusi den azkena baita, hazkunde ahula eta zerotik hurbila jasoko da.

EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2012ko martxoa)


Urte arteko aldakuntza tasak	2012.I	2012.II	2012.III	2012.IV	2012	2013.I	2013.II
BPG	-0,8	-1,6	-1,4	-1,2	-1,3	-0,5	0,1
Azken kontsumoa	-0,8	-1,1	-0,7	-0,5	-0,8	-0,2	0,1
Kontsumo pribatua	0,0	-0,4	-0,4	-0,4	-0,3	-0,2	0,1
Kontsumo publikoa	-3,5	-3,6	-2,0	-0,8	-2,5	-0,1	0,0
Kapital eraketa gordina	-3,2	-4,0	-3,9	-3,8	-3,7	-3,3	-2,7
Barne eskariaren ekarpena	-1,3	-1,8	-1,5	-1,3	-1,5	-0,8	-0,4
Kanpo saldoaren ekarpena	0,5	0,2	0,1	0,1	0,2	0,2	0,5
Lehen arloa	-10,5	-23,8	-24,7	-19,7	-19,7	-16,0	-9,3
Industria	-0,9	-2,1	-2,5	-1,9	-1,9	-0,8	0,5
Eraikuntza	-6,0	-6,7	-6,9	-5,2	-6,2	-4,1	-3,4
Zerbitzuak	-0,2	-0,5	-0,2	-0,2	-0,3	0,1	0,4
Balio erantsi gordina	-0,9	-1,5	-1,5	-1,2	-1,3	-0,6	0,1
Ekoizkinen g. zerga garbiak	-0,2	-0,6	0,0	0,0	-0,2	0,2	0,6
BPGren deflatoarea	1,3	1,3	1,1	1,0	1,2	1,1	1,2
Enplegua	-1,8	-2,0	-1,7	-1,7	-1,8	-1,3	-1,0
Langabezia tasa	11,7	12,1	12,2	12,2	12,1	12,3	12,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

2012. urtean zehar, barne eskariak ahultasun handia erakutsiko du eta, horren ondorioz, ezin izango du ekarpen positiborik egin EAEko barne produktu gordinari. Ahultasun hori aurreikusi den epealdi osora luzatuko da. Aitzitik, kanpo eskariak ekarpen positiboa egingo du, baina oso txikia izango da eta mugatuta egongo da nazioarteko ingurunea, bereziki Espainian, ezegokia izango delako. Inportazioak gutxituko dira, barne eskariaren beherakadarengatik, eta esportazioak haziko dira, baina gero eta gutxiago.

Barne eskaria osatzen duten osagai guztiek behera egingo dute. Familien gastua kontsumoan %0,3aren inguruan murriztuko da 2012. urtean. Kontsumitzaileek aurreikuspen ezkorak hauteman dituzte nazioarteko ekonomiaren bilakaeraz eta, bereziki, lan merkatuaren egoeraz, enplegua galduko dela eta langabezia tasa igoko dela pentsatzen dutelako. Horren ondorioz, EAEko familiek portaera zuhurra erakutsiko dute eta kontsumoa ezin izango da hazi. Administrazio publikoek, berriz, gastua oso nabarmen murriztuko dute kontu publikoak onbideratze aldera. Eszenategi makroekonomiko berriaren estimazioen arabera, kontsumo publikoaren murrizketa %2,5era iritsiko da. Merkatuetan nabaritzen den mesfidantza enpresariei ere eragin die eta horrek, beste oztopo batzuekin batera, hala nola bankuetatik finantzazioa lortzeko zailtasuna, inbertsioaren beherakada ekarriko du.

EAEko BPGren eta enpleguaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskaintzari dagokionez, ekoizpen arlo guztiek ekarpen negatiboa egingo diote balio erantsi gordinaren hazkundera 2012. urtean. 2013ko lehen seihilekoa arte itxaron beharko da suspertzeko zantzuak ikusteko eta hazkunde positiboko norabidea berreskuratzeko. Industriak 2012an izango duen narriadura %1,9ko jaitsieran estimatu da. Espainiako eta Euroguneko ekonomien egoera txarra industriaren jardura makalaraziko duen lasta bat da. Eraikuntzak eskariaren eta eskaintzaren arteko desoreka zuzentzen jarraituko du eta ez da hazkunde positiborik aurreikusten epealdi osoan. 2012. urterako aldakuntza tasa %-6,0an kokatuko da. Etxegintzaz gain, obra zibilak ere behera egingo du, aurrekontuak murrizteko ezarri diren neurrien ondorioz. Zerbitzuek ere 2012an atzeraldi leuna pairatuko duen beste sektore bat da

eta 2013ko lehen seiuhilekoan hasiko da berriro suspertzen. Datozen hiruhilekoetarako espero diren kontsumitzaileen kontsumo ezak eta gastu publiko txikiak hazkunde erritmoa gutxituko dute eta gehikuntza tasa negatiboak jasoko dira. Hirugarren sektorearen batez besteko hazkunde 2012. urtean %-0,3an estimatu da.

Aurreikusi den epealdi osorako ez da lanpostu garbien sorrerarik espero, alderantzik baizik. 2012. urtean eta 2013ko lehen seiuhilekoan, enpleguaren aldakuntza tasak %-1,8an eta %-1,2an kokatuko dira, hurrenez hurren. Horrek esan nahi du 17.000 lanpostu inguru galduko direla 2012an. Batez besteko langabezia tasa %12,1era iritsiko da 2012an eta %12,3ra, berriz, 2013ko lehen seiuhilekoan.

Datozen hiruhilekoetarako aurreikusi den eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiarako prestatu duen taula makroekonomikoak hainbat suposamendu hartu ditu kontuan nazioarteko inguruneko ekonomien etorkizuneko bilakaeraz, epe laburrean prezioek izango duten mailaz, euroak dolarren aldean izango duen truke tasaz eta Europako Banku Zentralak aurreikuspen epealdi honetan ezarriko dituen interes tasez.

Europako Banku Zentralak epe laburrean ezarriko duen politikaz, analisigileek uste dute datozen hilekoetan ez duela aldaketarik egingo interes tasetan, eremu horretako hazkunde ekonomikoa bultzatu behar delako. Europako ekonomiak baldintza zailak ditu aurrean, aurrekontuko herstura egitasmoekin, langabeziaren etengabeko igoerarekin eta kredituen eskaintza txikiarekin. Dena dela, EBZk inflazioa zaintzen jarraitzen du eta etengabe aztertzen du Euroguneko ekonomiaren egoera inflazioaren balizko igoera batekin. Arrisku hori, bereziki, petrolioaren nazioarteko salneurriaren igoetatik etor daiteke.

Oso litekeena da Europako gaur eguneko egoeraren ondorioz EBZk interes tasak maila apaletan uztea. Horri gehitzen bazaizkio Europako diruak bizi dituen arazoak, garbi geratzen da estatubatuar dolarrek garesti jarraituko duela euroaren aldean datozen hiruhilekoetan. Aurreikusitako epealdi osoan euroak dolarren aldean balioa galduko duela espero da eta 2012ko batez bestean euroa 1,30 dolarren truke salduko da. 2013an, berriz, euroaren kotizazioa 1,28 dolarretara iritsiko da.

Aurreikuspen horiek oinarritzko eszenategi batean oinarritzen dira, baina arrisku eta ziurgabetasun handiak daude, beraz ekonomien hazkunde tasak bizkortu edo galgatu daiteke. Europa izango da giltza aurrerapen erritmoa ezartzeko orduan. Beste aldetik, Txinak ustez pairatuko duen moteltzea munduko ekonomia osorako kezka iturria da. Oinarritzko eszenategiaren aurreikuspenak aldatu ditzakeen beste faktore bat petrolioaren salneurria da.

Eskualde esportatzaileetan bizi den ezegonkortasun politikoa arrisku bat da herrialde inportatzaileetarako petrolioaren horniduran. Aitzitik, ekonomia eragileen konfiantzak, bereziki kontsumitzaileenak, hobera egingo balu litekeena da ekonomiaren hazkunde igurikimenak gorantz zuzendu behar izatea.

